

uk

223. zenbakia / 2012ko azaroaren 20a



47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

ANTOLATZAILA: KULTURA GONBIDATUA: BABESLE NAGUSIA: BABESLE PUBLIKOAK: BABESLE PRIVATUAK: KOMUNIKABIDEA:

Dacia Lodgy berria

Monobolumen handi bat

9.700€-tik aurrera¹

Aukeran 5 edo 7 plazakoa
GPS nabigatzailea inkorporatuta
Maletategiaren edukiera: 2.600 dm³

3URTEKO BERMEA EDO 100.000 km

www.dacia.es / 902 245 200 | Zure Renault Dacia kontzesioan aurkitu ezazu.

1.) Adierazitako PSP penintsulan eta Balearretan da baliagarria 12/10/31ra arte, Lodgy Base 1.6 60 kw (85 ZP) modeloa erosteko, zergak barne, RCI Banqueko Espainiako sukurtsalarekin lotutako finantzatze deskontua sartzen da. Ekipamenduak bertsiorearen araberakoak dira. Argazkiko modeloa: Lodgy Laureate TCE 85 kw, 16"-ko hagunekin; gomendatutako PSP: 14.632 €. **2.)** Lehen bi urteetarako bermea kilometraje- mugarik gabea da. Bigarren urtetik aurrera, bi baldintzetako bat gauzatzen denean amaituko da bermea.

Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO₂ emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa. Dacia recomienda

BILBO BERRI Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Aritzta Bergara, Algortako Bertsu Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Bilako Foru Aldundia Diputazioan Foral de Bizkaia Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Luxuzko itsasontzien kaia eraikitzeke lehenengo lanak.
6. FACEGUK. Zer gura zenuke euskaraz egin, eta ezin?
7. LEHEN ETA ORAIN. Leioako geltokia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Maria Dolores Legarra eta Andres Zarraga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Domu Santu Eguna.
28. ARGAZKIA. Trena Algortan, 1985.
30. BERBETAN. Roman Deusto, "Faneka".
34. FOTOGRAFIA. Gorlizko Argazki Lehiaketa.
40. SAKONEAN. Getxoko Antzerki Eskolaren 30. urteurrena.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Zinebi.
43. MUSIKA. Kafe aleak liburua.
44. LIBURUAK. Urbintxaren Titiriteroen ipuinak.
45. KIROLAK. Uxue Martinez de Goñi, piraguiста.
46. ELKARRIZKETA. Joxe Felix Azurmendi.
47. JENTILKOBA. Mari jainkosari koplak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Txokolate muffina.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. San Mames futbol zelaian, 1976.
54. AITORMENAK. Ander Lipus.

Azala: Gorlizko Argazki Lehiaketa

www.ukaldizkaria.biz



30 Roman Deusto "Faneka"

Berbetan

Laster hondora doan Portu Zaharreko egurrezko azken arrantza-ontziko, Txoritxu-ko arrantzale eta patroil.



11 Larrondo Beko baserrikoak



54 Ander Lipus

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Armando Llamosas

> arkeologoa

Udaletako ondare-politikak, huts-politikak

Duela gutxi pairatu dugu hauteskunde kanpaina bat. Kanpaina horietan alderdiek bere programa azaldu omen digute. Hala izango da. Aspektu gehienetan programaren azalpenak oso eskasak ohi dira, kontsigena ezagunen bat izan ezik. Programa orokorrean horrela bada, kultura-politikaren azalpenak negargarriak dira. Ez da ezer esaten, ez baitute ezer esateko. Aipuren bat besterik ez dago hizkuntza-politikari buruz, eta normalean zehaztasun gehiegirik gabe.

Horrela bada politika orokorra, imagina dezagun gure udal-politika, katebegi baxuea, nola dabilen: politikarik gabe. Hala ere, udal-administrazioa ez da orokorra, ez da Lakua urruna, ez nonahiko Aldundia. Udaletan kultura-ehuna urratzen da, kultura-elkarteak itotzen dira, profesionalek bere lana uzten dute eta sortzaileak alferrik galtzen dira, eta, ukituena, ondarea gure begien aurrean hondatzen da.

Kultura-ondarea bitxia da. Hiritarrok, sarritan, ez dugu ulertzen, baina ulertzen eta sentitzen dugu bere garrantzia. Beraz, politikariek, derrigorrez, kontuan hartu behar dute: gaztelu hondatua, hiribildu zaindu gabea, dorrea utzita edo jauregia desitxuratzaren dituen lanak ikusten ditugunean, udalari begiratzen diogu lehenengo.

Begirada galdua, ordea, normalean ez baitago nora begiratu, ondareari dagokion udal-politika ez dago-eta. Hiri-antolamenduan ezkutatzen dira hutsune horiek, baina, sarritan, han, hondamena eta hiri-hazkundera antolatzen da, ez ondarea. Udal-antolamendua lanabes itzela da, baina sortzeko eta suntsitzeko eta gure testuinguruan... bistan dago.

Getxon, ondare gehiena duen udalean (kontuz, ez dut esan onena), horrela gertatzen da. Noizean behin, alderdi batek ohar-tarazten gaitu bistan dagoenaz: zerbait utzi-

ta (Galeako gotorlekua...). Bestetan, kale egiten dute eta nahasten dute zainketa eta erabilera (Etxe sorgindua). Ondo berreskuratuta, eta orain erabilerarik gabe (eta?). Bitartean, Punta Begoña hor dago, instituzio guztien ezgaitasuna azalduz. Orain, alderdi batek mozio bat aurkeztu du, kultura-ondarea kudeatzeko. Laburra, ez betea, eta arazo askorekin, baina ondare-politika beharrak eta hausnarketa beharra ondo azaltzen dira mozioan; gainera, arazoak arazo, multzo-konponketa aurkezten du. Mozio hori arbuizatzek haren ordezko ideiarenean bat azaltzea behar izan zuen.

Bitartean, alkatetza beharra eta ezintasunaren artean dago, garrantzia onartzen du (hor daude Punta Begoñari buruzko azken erabakiak), baina mugimendua norantz egin jakin gabe.

Getxon, noizean behin, ondareari buruz hitz egiten da. Ondo dago. Norabide eta helburua zuzenak omen dira. Abiadura honekin 50 urte barru izena merezi duen ondare-politika izan gintezke. Ordurako, agian, kudeatzeko zerbait egongo da. ○



gu geu

Euskaraz bizi gura dogu!

Geuk ere *“Euskaraz bizi nahi dugu”* lelopean Kontseiluak egin duen manifestaziorako deiagaz bat egiten dugu. “Euskalgintzako, kultura eta gizarte arloko ordezkari eta hainbat norbanako euskaltzalerekin batera” Kontseiluak egindako agerraldian jakinarazi duenez, manifestazioa abenduaren 1ean Anoetatik abiatuko da 17:00etan. Webgunean atxikimenduak jasotzen dituzte.

Bestalde, txokotxo honetatik jakinarazten dizugu, hil honen 21ean Euskal Hedabideen elkartearen eratu dela, Tokikom (beste hamaika artean, UK eta UKberri bazkide dituen, tokiko komunikabideak batzen dituen), Berria Taldea, Argia, Jakin, Euskal irriatiak, Irrien Lagunak, Hamaika TB, Hamaika Irratiak, Elhuyar, Zuzeu, Aizul, Gaztezulok eta abarrek osatzen dutena.

UK-ko lan-taldea

2012KO AZARAREN 12AN

Bidaia-ontzientzako kaia...! Getxoko kirol-portuan eraikitzen hasi dira bidaia-ontzientzako bigarren kaia. Horretarako, dragatze-lanak egiten dabilza, irudi honetan ikus daitekeenez. Kai barriak 27.400 metro koadro izango ditu: 76 metro zabal, 355 metro luze eta 12 metro sakon. Bilboko Portuko arduradunek jakinarazi legez, nasa egin ahal izateko 12 kaxa eraiki beharko dute: 29,42 metro luze, 14 metro zabal eta 16 metroko euskarria izango dute. Lanok 13,8 milioi euroko kostua izango dute eta 16 hilabete iraungo ei dute. Horren ostean, bidaia-ontzientzako nasa bi izango ditu Getxok. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer gustatuko litzaizuke euskaraz egitea, eta ezin duzu?



Algorta

Ekaitz Larrazabal

> irakaslea

Algortan eguneroko gauza asko ezin dira euskaraz egin; azken finean, ezin da naturaltasunez euskaraz bizi: berbarako, udaletxera zoazenean euskaraz edozein tramite egiteko denbora luze itxaron behar duzu langile euskaldun bat etorri arte. Horrenbestez, ezin diozu bizitzaren erritmo naturalari eutsi.




Gorliz

Roberto Lopez

> funtzionarioa

Nik administrazioan lan egiten dut, eta askotan bezeroekin euskaraz egiten saiatzen naizen arren gaztelaniaz hitz egiten dugu. Uste dut hainbeste hitz tekniko dagoenez, jende askok askotan ez duela ulertzen, eta ondorioz, gaztelaniaz hitz egin behar izaten dugu.



Algorta

Eder Murua

> langabea

Lagunartean, kuadrilan adibidez batzuetan euskaraz hitz egin gura nuke; baina badago euskalduna ez den jendea; beraz, euskaldunen artean ez dugu euskaraz hitz egiten guztiak uler dezaten. Azkenean, beti gaztelaniaz hitz egiten dugu.



Santutxu

Jokin Etxebarria

> irakaslea

Nire kasuan, bikotearekin harremana gaztelaniaz hasi nintzen. Ni euskalduna naizen arren, berak ez daki asko. Halere, orain guraso izan gara eta saiatzen ari gara, euskaraz gure artean ere egiten, umearen aurrean, baita gu biok bakarrik gaudenean ere; horretan gaude.



Getxo

Batirtze Lertxundi

> erizaintza ikaslea

Ospitalean praktikak egin ditudanean, bertako lana gaztelaniaz egin behar izan dut; izan ere, ospitalean erizainek egin behar dituzten hainbat lan, berbarako, gaixoen ebolutiboak idatzi, gaztelaniaz egin behar dituzte. Horixe, gura nuke: ospitalean euskaraz lan egitea.



Algorta

Aketza Zurinaga

> ikaslea

Herri hau guztiz erdalduna da; beraz, edozein dendatarara joanda gaztelaniaz hitz egin behar duzu; nahiz eta askotan euskaraz hitz egin nahi izan. Horrez gain, kuadrilan ere, batzuek ez daukate euskaraz hitz egiteko ohitura, eta gaztelaniaz hitz egiten dugu.



Iraganez doa denbora* beti / LEIOAKO GELTOKIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Itsasoan



Arriluze, 2012ko irailean

Testua: **Peio Arondo** / Argazkia: **Asier Mentxaka*** Doinua: *Dena ez denean ezer*

"Pride of Bilbao"-a badoa apurtuz ur gainazala denborak egin dezala harroputzaren ahora geroz (e)ta umilagoa handitasuna tarteka nahiz (e)ta den guztion meta utzi behar dugu gomutan harrotasunak batzu(e)tan alde egin behar du eta.

Harrokeriarekin bat galdu behar da burua (e)ta turisten helburua denez galtzea erabat hor montatzen dira denak festa oinarri (e)ta erpin nork ez du joan nahi zuekin? Ez da egongo jai gutxi han ondo pasa itsasontzian eta kontuz izotzekin.

Egonagatik bidea goraino iceberg handiz desegingo dira berriz (e)ta ez bada lortzen barea bidaia ez da amaigabea izotz hotz blokeetan zehar ez da negar egin behar jarraitu aurrera trebe tragedia handienek ere dituzte hamabi oscar.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Info+: www.bizkaikotxapelketa.com

bertsolari txapelketa > finalaurreak

Daborduko badakizkigu Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurretan lehiatuko diren 18 bertsolariak nortzuk diren. Horien artean uribekostarrak honakoak: Arrate Illaro, Fredi Paia, eta Jone Urija; eta hirurak finalaurreko berean lehiatuko dira. Hiru finalaurreko jokatu dira: lehenengoa, dagoeneko izan da eta Arkaitz Estiballes, Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano, Iñaki Iturriotz, Oihana

Bartra eta Onintza Enbeita lehiatu dira; bigarrean, hilaren 25ean Durangoko Landakon (17:30) egingo dena, Jone Urija, Arrate Illaro, Fredi Paia, Gorka Ostolaza, Igor Elortza eta Etxahun Lekue jardungo dute; eta hirugarrean, abenduaren 2an Gernika-Lumoko Jai Alai frontoian (17:30), Peio Ormazabal, Beñat Ugartetxea, Miren Amuriza, Iratxe Ibarra, Ibon Ajuria eta Joseba Artza. ○

berbalagunen txangoa > dorretxeak ezagutzuz

Hurrengo Berbatxangorako hitzordua ipini dute Aitxu eta Berbots euskara elkarteek eta Egizu ekimenak, abenduaren 2an izango da. Oraingo honetan Uribe Kostako dorretxeak ezagutzeko ibilbidea prestatu dute, hala Erandiotik Plentziara, Berangotik pasatuz egingo dute dorretxeen bidea. Dorretxeen barri emoteko Unai Aurrekoetxea izango dute hizlari txangora animatzen direnek, hark

azalduko die garaiko etxe berezi bakoitzaren garrantzia eta historia. Ordua eta gertokiak oraindik zehazteke dituzte, baina ohi legez, parte hartzeko asmoa duenak alde aurretik izena emon behar duenez, eta ondorioz, antolatzaileak harremanetan ipini beharko duenez, datu horiek orduan zehaz litzake. ○

Info+: aitxuzuba@gmail.com
berbots@gmail.com edo www.egizu.org



Erandioko (La Campa) dorretxea

Info+: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com.es

berango > ibilaldi neurtua

XXX. Ibilaldi Neurtua antolatu dute Sei Herrikoek abenduaren 2rako. Nagusien urteera 9:00etan izango da, umeena 9:30ean (izen-emotea: nagusiak 8:15ean, haurrak 9:00etan). Antolatzaileek zabaldu duten blogean diotenez, "orain dela 30 urte Berangoko gazte batzuk elkartu eta lehen ibilaldi neurtua antolatu zuten. Beraien nahia gure herriko mendi eta txokoak ezagutarazteaz gain, euskal giroko kirol eta

kultur ekintza burutzea zen. Lana nekero-soa izan zen, baina martxan jarri zuten. Bigarren ibilaldia ospatu aurretik antolatzaileetako bat, Gomi, hil egin zen... Baina lagunek sortutako proiektuari tinko heldu eta bigarren ibilaldia burutu zuten". 30 urteotan, nekez baina ia urtero antolatu dute ibilaldia berangoztarrek; aurton ere, herri-bazkaria (5 euro), jolasak, kantu triki-poteoa e.a. egongo dira. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



abenduak
3
2012
euskararen
eguna

BERBODROMOA
Altzagako azoka zaharrear
10:30 - 11:30 eta 18:00 - 19:00

19:30ean **ERROMERIA**
(Gautxorik antolatua)






Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saria
Departamento de Cultura



“Suak deko inportantzia handia: astiro egin, denporaz, pazientziagaz brasak imini...”

Larrondo Beko baserrikoak > Putxeretan txapeldun

Bor-bor izan genuen Sopela azaroaren 3an. Pepetxinen omenez, III. Putxera Eguna ospatu zen egun horretan, eta eguraldia lagun izan ez zuten arren, 104 putxera aurkeztu ziren lehiaketara, hots, aurreko urteetan baino gehiago. Txapela, gainera, herrian lotu zen: Maria Dolores Legarra eta Andres Zarraga izan ziren putxeretan onenak. “*Ez gendun espero, joan gintzen disfrutatzeagatik!*”. Zarragak aitortu duen legez, praktatan kabitu ezinik jaso zuten saria: “*Ez dut egun hoberik pasa, ez dakit noz... disfruta nendun!*”. Bigarren aldia da horrelako putxera-lehiaketa batera aurkeztu direla; lehenengoa otsailean izan zen, Loiu, eta lokalen saria irabazi zuten, Andres jatorriz bertokoa baita. Birritan aurkeztu, eta sari bi lortu. Hau bai marka, eta gainera, apaltasunez! “*Ez dugu sekretu berezirik, etxean lez egiten ditugu, betiko modun*”. Hori bai, indabak baserrikoak ziren, eta bertoko barazkiakaz saldatxu bat prestatu zuten euren lehengusina bategaz. Bestelako misteriorik? “*Suak deko inportantzia handia: astiro egin, denporaz, pazientziagaz brasak imini... Zazpietarako hor egon nintzen, eta gero denpora sobraz, larritu barik!*”. Lehen, ortuak ez ezik, 28 behi ere bazituzten Larrondo Beko baserri ederrean. Ederra bai, gogorra ere bai: “*Urteko egun duztiten altxatan gintzen 4:30ean: eraitsi behiak, emon jaten... Baserri gogorra da, ez dago Gabonzahar, Urtebarri, ez Errege... hor ez dau parorik!*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Euskal Kulturaren Jardunaldiak

Azaroan eta abenduan hamaika ekimen egingo dute Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan Udalak eta hainbat elkarteak: antzerkia, hitzaldiak, ikuskizunak, e.a.



Itxartu taldearen kalejira iazko Jardunaldietan

Euskararen Eguna ospatzen da abenduaren 3an eta, haren harira, Euskal Kulturaren Jardunaldiak egingo dituzte Udalak eta elkarteak, laugarrenez.

Abiatu dira jardunaldiak eta hamaika ekintza izango da, ohi legez, azaroan eta abenduan. “Euskara eta euskal kultura abalik eta herritar gehienengana hurbiltzeko” asmoz, egitarau zabala prestatu dute Udalak eta herriko elkarte askok: Bizarra Lepoan, ALBE, SENDI, EGIZU, UK aldizkaria, Getxophoto, Itxas-Argia, Itxartu Taldea eta Bizkaiko Trikitixa elkarteak.

Daborduko zabaldu dute ‘Hitz-Enea’ erakusketa eta hainbat ekimen garatu dituzte, baina gauza askotan parte hartzeko aukera daukazu oraindino: antzerkia,

tailerrak, ikuskizunak, hitzaldiak, bertsoak, kalejirak, zinema, e.a.

Aipatzekoa da abenduaren 3rako EGIZUK antolatu duen Berbodromoa, Fadurako jatetxe zaharrean: hiru gai izango dituzte hizpide eta, goiz eta arrastiko

«Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Eguna eta, haren harira, urtero antolatzen dira Kulturaren Jardunaldiak»

txandetan, 500 lagun elkartu gura dute.

Jardunaldien baitan ere emongo dute Argia Ereiten Euskara Saria, azaroaren 28an, 20:00etan, Faduran. Gainera, ALBE Gala egingo dute bertan abenduaren 9an, 18:00etan. Ekintza gehiagoren barri duzu alboko zutabea. ○

Ekitaldi batzuk

- **Azaroak 21, eguaztena:**
 - Gaileta tailerra (Bidebitarte txokoa; 18:30).
 - Antzerkia: *Morrison eta Gartzia, kultoko antzezlan*a (Algortako Pipers taberna; 20:00).
- **Azaroak 22, eguena:**
 - Alberto Iñurrategiren hitzaldia: *Porrotaren gorazarra* (Fadura; 19:30).
- **Azaroak 24, zapatua:**
 - Nazioarteko Trikitixa Jaialdia (Musika Eskola; 18:00; 8 euro).
- **Azaroak 28, eguaztena:**
 - Euskara Saria (Fadura; 20:00).
- **Azaroak 29, eguena:**
 - Bakarrizketa: *Euskalduna naiz eta arrarago!* (Romoko Billares taberna; 20:00).
- **Azaroak 30, barikua:**
 - Tailerra: Zu zeu sukaldari (Itxas-Argia txokoa; 17:00).
 - Euskal mitologiaren festa (Areetako Eskoletako plaza; 17:30).
- **Abendu osoa:**
 - ‘ArgiHizkiak’ erakusketa (Algortako azoka).
- **Abenduak 1, zapatua:**
 - Bertsotriband (Musika Eskola; 19:30).
- **Abenduak 2, domeka:**
 - Zinema: *Freddy Igeldegi* (Musika Eskola; 17:00; 2,10 euro).
 - Dantza-kalejira (Algorta; 12:00).
- **Abenduak 3, astelehena:**
 - Berbodromoa (Fadurako jatetxe zaharra; goiz eta arrastiz).
- **Abenduak 9, domeka:**
 - ALBE Gala (Fadura; 18:00).
- **Abenduak 13, eguena:**
 - Show Cooking* Ardoa Lagun (Fadura Ostalaritza Eskola; 19:00).
- **Abenduak 15 eta 16, zapatua eta domeka:**
 - GetxONegin Pintxo-Lehiaketa (tabernak).
- **Abenduak 21, barikua:**
 - Maia Egutegiaren amaiera-jai (Algortako Geltokia plaza).

HAPN barrikustea

egiteko programa “partehartzailea” izango da



Programan parte-hartzeko eta informazio gehiago: www.getxo.net

Herritarrek Parte Hartzeko Programa sortuko du Udalak Getxoko Hiri-antolamendurako Plan Nagusia (HAPN) barrikusteko prozesuan “herritarren eta elkarrekin parte hartzeko eskubidea bermatzeko”.

Parte hartzeko hainbat modu egongo da: Lan-taldea, Prestakuntzarako hitzaldiak eta Aholku-Batzordea. Halaber, udaleko webgunean atal zehatz bat egongo da “prozesuaren informazioa eta gardentasuna gehiago bultzatzeko”.

Lan-taldea ei da “programaren barritasun nagusia”: 60 pertsonak osatutako lan-taldea eratuko da herritarrek eta elkarrekin ordezkariek. Idazketa-taldeak zuzenduko du Lan-taldea eta agiriak eroango ditu azken horren saioretara. Agiriok aztertu eta eztabaidatu ostean, Lan-taldearen proposamenak gehituko

zaizkie. Parte hartzeko, Udalaren webguneko Lan-taldea sortzea ataleko inprimakia bete eta Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) aurkeztu behar da.

Gainera, prestakuntzarako hitzaldi bere emongo ditu Idazketa-taldeak eta herritar denek irekita egongo dira; eduki desberdina izango dute eta elkarren osagarri izango dira. Hartara, “lurreko antolamenduko planen edukia eta zehaztapenak azalduko dira, eta arreta berezia eskainiko zaie Getxoko udal-mugartean eraginkorrak diren lurreko-plangintza partzialari eta lurrekoaren arloko planari”. Oraindino ez dute esan noiz egingo diren hitzaldiak. Azkenik, datozen hilotan Aholku-Batzordea barritu eta partaideak aldatuko dituztela iragarri du Udalak; duela lau urte sortu zuten batzordea. ○

AZAROAREN 25EAN ALDARRIKAPENA KALERA

Algortako Bilgune Feministak hainbat ekintza prestatu du azaroaren 25erako, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunerako. Goizeko 11:30ean zita ipini dute Telletxeko metro geltokian, Bilboko mobilizaziora joateko. Arrastian, barriz, herrian lotuko dira: 15:30ean Telletxetik abiatuko dute pintxo-poteoa eta, 18:30ean, zine-foruma egingo dute Abian elkartearen. Gainera, Romoko Gizatiar elkarteak kontzentrazioa deitu du azaroaren 22rako, 19:30ean, Bizkaiko Zubian.

BOTO EMOTEA BELDUR BARIK LEHIAKETAN

Indarkeria sexistaren aurkako lehiaketa da Baldur Barik eta gazteei zuzenduta dago. Aurkeztutako lanak ikusgai daude interneten eta, onena aukeratzeko, botoa emon daiteke. Horretarako, ondoko webgunean sartu eta erregistratu beharra dago: www.beldurbarik.org. Ondoren, zure korreo elektronikoa jasoko duzu mezua, botoa emoteko loturagaz. Bertan klikatu eta lanik gustukoena bultzatu ahalko duzu. Getxotik lan bi aurkeztu dituzte.

Info+: www.beldurbarik.org

MENDIZALE FEDERATUEN LIZENTZIAK ITXAS-ARGIAN

2013.eko mendizale federatuen lizentzia eskuratzeko aukera egongo da datorren hilean. Izan ere, abenduaren 10ean federatuen lizentziak tramitatzen edo burutzen hasiko da Itxas-Argia Mendi Taldea. Apiril bitartean martitzenero eta eguenero jo dezakezu euren gura, 19:30etik 21:30era, taldearen lokalera (Iturrubide 24, behe, Getxo); maiatzetik aurrera ere tramitatuko dituzte lizentziak, baina astean behin. Edonork eskuratu ahalko du bere mendi-lizentzia, hala gura izanez gero. Lizentzia eta aseguruaren prezioen gaineko informazio gehiago behar duenak eurakaz harremanetan ipin daitezke:

Info+: 944 300 662
mendi@itxas-argia.com



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Irene Uriarte > UKnatura egitasmoa, Wanted lehiaketaren irabazlea

“Gizakiak naturagaz daukan harremana aldatu beharra daukagu”



UKnaturako lagunak. Info+: www.uknatura.org

UKnatura delako proiektuagaz irabazi dute Wanted lehiaketa Irene Uriarte eta Naroa Casado algortarrek, eta Antxon Alkalde urduliztarrak. Lehena biologoa da, bigarrena geologoa eta hirugarrena arkitekto teknikoa. Tailer eta bestelako ekimenen bitartez, biztanleria hezi gura dute naturagaz konprometitu eta arduratsua izan dadin. Hasieran interneteko gune gisa sortu zuten UKnatura baina, hemendik aurrera, kalera salto egingo du eta tailer zein ibilbide ekologikoak egingo dituzte. Gainera, Getxotik kanpora ere zabaldu gura dituzte ekintzak.

—UKnatura, zer da hori?

—UKnatura sortu genuen Wanted lehiaketan parte hartzeko: komunitate birtuala da, pertsonak hezteko eta inguru naturalagaz harremanetan ipintzeko. Naturaren babesa eta errespetua bultzatuko duten ekintzak, tailerrak edota informazioa eskaintzeko, eta, horrela, jendartea sensibilizatzeko. Baloreok biztanleriagaz partekatzen ditugu tailerrak eta ekintzak.

—Komunitate birtuala diozunean zer esan gura duzu: interneteko gunea?

—Bai, blog bat da, giza-sare bat. Hori hasierako asmoa zen, baina ez dugu horretan geratu gura. Ekimenak benetan gauzatu gura ditugu, tailerrak, ibilbideak, e.a. Horretarako, Udalakaz eta elkarteak harremanetan gaude eta daborduko emon dugu lehen tailerra Sendi egitasmoren barruan. Lehiaketa Getxo mailakoa zen eta bertarako sortu behar genuen baina, orain, salto hori emoten ari gara, herritik kanpora zabaldu gura dugu proiektua, eskualde osora.

—Zelan otu zitzaizuen horrelako egitas-

mo bat sortzea lehiaketa baterako?

—Hiru partaideak lagunak gara: Naroa geologoa da, Antxon arkitekto teknikoa eta ni biologoa. Gainera, espezializatuta gaude irakaskuntzan, bio-eraikuntzan eta ingurumen-hezkuntzan. Eskaintzen ditu-

«Krisia aukera da indarrak batu eta norabide berean lan egiteko»

gun tailerrak nekazaritza ekologikoaren ingurukoak dira: ortu organikoak, bio-eraikuntza, xaboi ekologikoak, landare aromatikoak eta kosmetiko naturalak; baita inguruko fauna eta floraren babesa, eta eremu naturalen biodibertsitatea handitzeko tailerrak ere. Gainera, ibilbide gidatuak egiteko asmoa daukagu, orain hasi baino ez gara egin. Azken finean, funtzionamendu barria planteatu gura dugu, ingurumen-hezkuntzan oinarritutako kultura barria, eta hori praktikara eroan. Herri-tarrek parte hartzea gura dugu, kontura daitezen ohiturak eta bizitzeko moduak aldatu behar ditugula. Gure arteko harremanakaz eta gizakiak naturagaz daukan harremanakaz hasi behar dugu. Argi dugu horrela ezin dugula jarraitu eta gure konpromisoa eskaintzen dugu ingurumen-hezkuntzaren eremuan baloreak, eza-gupenak eta trebetasunak garatzen laguntzeko, erantzukizuneko herritarrak sortuz. Uribe Kostako agro-asanbladan gabiltza eta, alde horretatik, tresna baliagarria deritzogu auzolanari.

—Badirudi modan dagoela gaia: ortuak, kontsumo-taldeak, e.a. zabaldu dira-eta.

—Nabari da aldaketa behar dela eta jendea ohartzen ari da. Ez dut uste moda denik. Krisi garaia aukera ona da bakoitzaren ahalmenak hartu eta, indarrak batuz, elkarregaz lan egiteko norabide berean. ○

Manga-Azoka abenduan

Lehenengoz egingo da azoka propioa abenduaren 1 eta 2an, Areetako karpan



Orain arte Komiki-Azokagaz batera egin da Mangari buruzkoa

Manga bakar-bakarrik. Lehenengoz egingo da Manga-Azoka, aurten Komiki Azokatik banatuta. Abenduaren 1ean eta 2an izango da, Areetako Geltokia plazako karpan: 38 saltoki egongo da eta, horietan, manga komikiak, anime filmak (japoniar animazio-zinea) eta mota guztietako *merchandising* objektuak erosi ahalko dituzte bisitariak.

Baina bestelako ekimenak ere antolatuta dituzte Azokaren baitan; besteak beste: anime pelikulen proiektzioak, nobedadeen aurkezpenak, mahainguruak, hitzaldiak, erakusketak eta zozketak.

Ohi legez, lehiaketek ere erakarriko

dituzte bisitariak: karaoke, Go (estrategia-jokoa), Yugi Oh! (karta-jokoa) eta cosplay (mozorroak) lehiaketetan parte hartu ahalko dute.

Baina hori dena gitxi balitz, gainera, hiru tailer antolatu dituzte Manga-Azokan. Tailerrotan landuko dituzte japoniar kaligrafia, ikebana (papiroflexia japoniarra) eta amigurumi (kokorraz delako lan-teknika); gura duenak aukera izango du teknika horiek ikasteko. Egun osoan zabalduko dute Azoka, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Sarrera 1,5 eurokoa izango da. ○

Info+: www.salondelcomicdegetxo.net

KOMIKIA AZAROAREN 23TIK 25ERA IZANGO DA

Komikia eta manga banatuta, aste akabu honetan egingo dute Komiki-Azoka Areetako Geltokia plazako karpan, UK-ko aurreko zenbakian iragarri legez: 60 postu ipiniko dute eta zabalik egongo da 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Salmenta postuez gain, hainbat ekintza prestatu dute: mahainguruak, film-emanaldiak, hitzaldiak, tailerrak, e.a. Adibidez, karparen inguruan Balanzin aldizkariaren erakusketa izango da. Sarrerak 1,50 euro balio du. Gainera, hainbat artista gonbidatu dute azokara: bertan izango dira, esaterako, Eddie Campbell eskoziarra eta Miguelanxo Prado. Gainera, Azokak omenaldia egingo die Norma Editorial argitaletxeari eta Luter! Taldea euskal kolektiboari; azaroaren 23an izango da ekitaldia, karpan bertan.

Info+: www.salondelcomicdegetxo.net

KATALAN BILTZARRARI BURUZKO HITZALDIA AZAROAREN 27AN

Ikasketa Bolibartarrak elkarteak hitzaldia antolatu du Algortan azaroaren 27rako, martitzena. Ondoko galdera plazaratuko dute bertan: “*Katalanen Biltzar Nazionala, eta gurea?*”. Hizlari arituko da Carles Castellanos i Llorenç ANCKo presidenteorde eta unibertsitate-irakaslea. Gainera, Tomas Urzainquik ere parte hartuko du Itxaso Paia gidatutako saioan. Villamonteko kultur etxean izango da berbaldia, arrastiko 19:00etan.

ARGIA EREITEN EUSKARA SARIA AZAROAREN 28AN

Euskararen erabilera babestu, sustatu edo hedatzeko zereginetan nabarmendu diren Getxoko erakunde, elkarte edo norbanakoei Udalak emoten dien saria da Argia Ereiten. Aurtengo edizioa hirugarrena izango da eta ekitaldia azaroaren 28an, 20:00etan, egingo da Fadura areto nagusian. Iaz Bittor Egurrola euskaltzale, abeslari eta UK aldizkariko kideak jaso zuen saria.

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Andrak emakumeen elkarte sozio-kulturala

“Gure asmoa da emakumeak etxetik atararaztea eta elkartzeko eremu bat eskaintzea”

Azaroaren 25ari begira hainbat ekimen antolatu dute Andrak elkarteak kideek. Baina aldarrikapenaren atzean, urtetan lanean diharduen emakumeen elkarte sozio-kulturala dago. Leioako ehunka emakumeren bilgunea da Andrak.

—Zer antolatu duzue Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunean?

—Ohiko kontzentrazioa egingo dugu Bulebarrean, azaroaren 25ean bertan. Gainera, film-emanaldia eta solasaldia egingo dugu 26an, lokalean.

—Baina, ekintzotaz gain, zer dago elkarrearen atzean? Zein da zuen egitekoa?

—Elkarte sozio-kulturala da Andrak eta ekintzak garatzen ditugu. Asmoa da emakumeak etxetik atararaztea, eta elkartzeko eta harremanak izateko eremu bat eskaintzea, elkarre emakumea bultzatzeko sortu zen-eta. Etxekoandreaken figuraren garaitik denbora igaro bada ere, oraindino badauzkagu arazo propioak: etxe hutsaren sindromea, alarguntasuna, e.a. Horrelakoetan etxean sartu eta bakar dadera mugatzen gara bestela. Bestalde, tratatu txarren kasuak detektatzerakoan bitartekaritza egiteko aukera daukagu, jarraitu beharreko urratsez informatzeko



Sabino Arana kaleko 78.ean dauka lokala Andrak elkarteak

eta emakume horiek bideratzeko. Elkarteak kide bik egin dute ikastaroa bitartekaritza lan hori garatu ahal izateko Andrak-en.

—Zer ikastaro mota antolatzen duzue?

—Denetik egiten dugu eta gauza asko lantzeko aukera dago: arte plastikoak, dantzak, antzerkia, gimnasia, musikoterapia eta antzekoak; baita formaziorako besteren bat ere, adibidez, literatura edo artearen historia. Urteerak ere egiten

ditugu: museoetara bisiteak arrakasta handia daukate. Martxoaren 8aren harira ere ekimenak egiten ditugu, eta ikasturte akabuan, festa bat. Ehunka bazkide daukagu eta horietatik askok parte hartzen du aipatu ekintzetan: 500 emakumek edo. Gehienak Leioakoak dira, baina inguruko herrietatik ere badatoz. Gehienak nagusiak gara, gazteek formazio handiagoa daukate eta agian bestelako ikastarok egiten dituzte, arautuak-edo. ○

Dokumental Zikloa

Langabetuen Asanbladak Dokumental Zikloa antolatu du **azaroan eta abenduan**



Charles Ferguson-en *Inside job* filma emongo dute zikloaren barruan

Badira zinema jaialdi handiak, Donostiako Zinemaldia bezalakoak. Badira gai jakin bat lantzen dutenak, adibidez, beldurra edota umorea. Baina badira jaialdi txikiak ere, herritarrek antolatzen dituztenak, eta aldarrikapenerako edo formaziorako baliagarriak direnak.

Horien barruan koka daitezke eguntan Leioako Langabetuen Tokian egiten ari dena: Gai sozialak hizpide, Dokumental Zikloa antolatu dute bertan azarorako eta abendurako.

Daborduko ikusi ahal izan dira Naomi Klein-en *La doctrina del shock* (2009koa) eta Charles Ferguson-en *Inside job* (2010). Baina beste hitzordu bi ere prestatu dute datozen asteotarako eta,

beraz, garaiz zabilta Langabetuen Tokira hurbiltzeko. Bi emanaldiak egingo dituzte eguaztenetan; lehena, abenduaren 5ean izango da eta Naomi Klein-en beste pelikula bat proiektatuko dute: *La Toma* (2004). Astebete beranduago, barriz, saio bikoitza izango da eta Ojo Obrero taldearen dokumental bi ikusteko parada egongo da: batetik, *Un Fantasma recorre la Argentina... Los Piqueteros* (2001); eta, bestetik, *Paso a las Luchadoras* (2003).

Dokumentalen ostean, gainera, bertaratutakoek aukera daukate solasaldia egiteko pelikulen edukiei buruz, Zikloak formaziorako bokazioa dauka-eta. Gogoratzea arrastiko 19:30ean hasiko direla emanaldiak eta sarrera doakoa dela. ○

AZAROAK 25, BADAGO ZER BORROKATU!

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna da azaroaren 25a eta Bilgune Feministak ekintzak antolatu ditu, “Emakumeon aurkako indarkeriaren aurrean emakumeok iraultza” lemapean: azaroaren 23an film laburren emanaldia izango da Andrak elkartearen lokalean, 19:00etan; 24an ipuin kontalaria arituko da, 18:30ean; eta 25ean kontzentrazioa izango da Bulebarrean, 13:00etan.

CARMEN PALOMEROREN ERAKUSKETA

Harremanak, maitasuna eta heriotzari buruz Carmen Palomeroren erakusketa ikusgai dago Kultur Leioan. Artearen eta bizitzaren arteko tartean lan egiten du Palomerok eta, oraingoan, gaia genero-indarkeriagaz lotuta dago, Damocles-en ezpataren kontzeptuari helduz: “emakume askok jasaten duen egoera da: maitasun ohantzean lo egiten dute Damocles-en ezpataren mehatxua alboan”. Baina, era berean, maitasuna goraitzen du Palomerok, amets egiten eta bizitzen jarraitzeko irtenbide gisa.

Info+: www.carmenpalomero.com

ZINEMA ETA MUSIKA KULTUR LEIOAN

Eskoziar musika kontzertua izango da azaroaren 30ean Kultur Leioan: Lori Watson & The Rule of Three eta Mánran taldeak arituko dira. Gaueko 21:00etan hasiko da saioa eta 20 euro ordaindu behar da sartzeko. Bestalde, VII. Mugarik Gabe zinema zikloa egingo dute azaro amaieran. Hilaren 28an proiektatuko dituzte: ZureVision-SocialVision lehiaketako spotak, *Mujeres campesinas y andaluzas, entre la tradición y la lucha* eta *Gure lurra, gure etorkizuna*, eta hilaren 28an: *America lucha* (Jakarta), *Cuba: camino a la soberanía alimentaria* (Cuba) eta *Transition 1.0* (Ingalaterra). Emanaldiak 20:00etan hasiko dira eta gonbidapena behar da sartzeko.

Info+: www.kulturleioa.net


MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztielako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaleak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Erlantz Plaza > Android sistemari buruzko blogaria

“Android sistema eragilea gura eran molda daiteke tresnetara, ezagutza da muga bakarra”

Plataforma anitzeko aplikazioen garapena ikasten ari da Erlantz Plaza astrabuduarra Tartanga ikastetxean, orain urte eta erdi. Orduan hasi zen Android sistemari buruzko blogagaz, Radio Euskadin kolaboratu du eta hitzaldiak emoten ditu.

—Android sistema eragileari buruzko bloga daukazu, zer dela eta?

—Duela urte eta erdi hasi nintzen blogagaz beste bazkide batez. Android sistema eragile mugikorra da, Google-ena. Interesa zeukala ikusi genuen sare sozialetan eta horregatik sortu genuen bloga, jendeagaz hartu-emanak izateko. Hortik aurrera hainbat proposamen egin zidaten hedabideetan kolaboratzeko, bertakoak batzuk eta kanpokoak besteak. Radio Euskadiren *Konekta 2.0* saioan kolaboratu dut hilabetez, Android sistema ezagutzera emonez.

—Hainbeste gauza esan daiteke sistema eragile baten gainean?

—Arrakasta izugarria eduki du: egunero Android sistemadun milioi erditik gora gailu aktibatzen da. Beraz, badago zer egin, bai profesionalki, bai zaletasunagatik. Gauza askori buruz hitz egin daiteke eta markek euren terminalak uzten dizkigute saltzen hasi baino lehen probatu eta



Info+: www.android.es

gure iritzia plazara dezagun: sakelako telefonoak, tablet gailuak, e.a. Aplikazio barriak ere aztertzen ditugu, eta garrantzitsuena da jendeagaz hartu-eman hori. —Zein tresnatarako balio du Android sistema eragileak?

—Eskuko gailuetarako orokorrean. Adibidez, autoetarako irratietan erabiltzen hasi dira; areago, laster aterako dute autoetan integratuta egongo den tableta erako irratia. Eta entzun dut garbigailuetan ere erabiliko dutela. Android-ek ko-

de librea dauka eta sistema molda dezakezu tresna desberdinetarako, zure ezagutzen arabera. Hau da, sistema zatika edo bere osotasunean hartu eta gura dudana egin dezakezu, jendeagaz partekatu, e.a. Muga bakarra da norberaren ezagutza. Horrek asko laguntzen dio komunitateari, blogei. Beste sistema batzuek, ordea, kode pribatua edo itxia daukate eta ezin da horrelakorik egin. Horregatik da Android hain bideragarria eta aukera mordoa eskaintzen du. ○

Euskara buruan

Euskararen **ezagutza gora** badoa ere **erabilera eskasa da** oraindino Erandion



Info+: www.soziolinguistika.org

Hizkuntza-erabileraren VI. kale-neurketaren emaitzak aurkeztu ditu Soziolinguistika Klusterrak. Euskal Herri osoan neurtu du hizkuntza-erabilera, baita Erandion ere, kalean herritarrek zein hizkuntzatan hitz egiten duten jakiteko.

Erandioztarren %97k gaztelania erabiltzen du kalean, %1,3k euskara eta %0,9k bestelako hizkuntzak. Euskararen erabilera espero daitekeenetik beherago dago; izan ere, herritarren ia %25ek daki euskaraz eta, horren arabera, biztanleen %4,1ek euskaraz egitea espero daiteke, Klusterraren arabera. Auzoz auzo, euskara erabiltzen du Altagako biztanleen ar-

tean %2,1ek, Astrabudian %0,4k eta Erandiogoikoan %1,2k. Gizon eta emakumeen artean ez dago alderik, baina bai umeen presentziaren eta adinaren arabera. Joera orokorraren barruan, Erandion ere gehiago egiten da euskaraz umeen aurrean. Eta interesgarriena zera da: baka-rik daudenean, umeek eta nagusiek euren artean gehiago erabiltzen dutela euskara; ez, ordea, gazteek eta adinekoak.

Euskalduntze bidean diren gainontzeko herrietan legez, euskaraz ezagutzatik erabilerara salto egitea da Erandioren erronka nagusia: hau da, euskara esparru formaletik informalera salto egitea. ○

AZAROAREN 25EAN HAINBAT EKINTZA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean hainbat ekimen antolatu du Erandioko Emakumeen Asanbladak. Domekan izango da azaroaren 25a, eta eguerdi eta arrastiz izango dira ekintzak Altaga auzoan: 14:00etan performance-a egingo dute Jado kalean zehar eta, jarraian, kontzentrazioa; arrastian, barriz, antzerkia eta ekitaldia izango dira metroko orubean. Gainera, egun osoan zehar Erandioko emakumeek mezuak idatzi eta eskegi ahalko dituzte herri osoan, zenbait tokitan ipiniko dituzten soketan; aurreko astean ere izango dira ekintzak.

GABONETAKO POSTAL LEHIAKETA ABIAN

Adi, umeak! 3 eta 12 urte bitartekoak bazara, Gabonetako Postal lehiaketan parte har dezakezu. Folio edo DIN A4 neurriko kartulian marraztu behar duzu postala eta liburutegira eroan behar duzu azaroaren 16a baino lehen. 3 eta 5 urte bitarteko umeek opari bana jasoko dute eta, gainera, sari bi ere emongo dute, liburu eta ikas-materialetan gastatzeko: lehenengo saria 130 eurokoa izango da eta bigarrena 100 eurokoa. Gainera, 70 euroko hiru sari emongo dio marrazkirik originalenari, kalitate artistiko handiena duenari eta bardintasuna eta elkertasuna ondoen adierazten duenari. Postal danen artean bat aukeratu, kopiak egin eta ume guztien artean banatuko dute.

Info+: www.erandio.net

UMEENTZAKO ANTZERKIA EUSKARAZ

Azaroaren 25ean, domekan, Txalo Produzioak taldeak *Jon beldurgabea* lana antzetzuko du Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, eguerdiko 12:00etan. Oraingoan doakoa izango da sartzea, eserleku danak bete arte. Bestalde, lau egun beranduago, 29an, ipuin-kontalaria arituko da auzoko liburutegian 18:00etan; sartzea doakoa izango da.



Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK ABIAN!

Bigarren urtez, aurrekontu parte-hartzaileen prozesua abian jarriko du Sopelako Udalak. Horrenbestez, sopeloztarrek 2013. urteko aurrekontuen inguruan euren ekarpenak eta iritziak emateko aukera izango dute. Horretarako, Udalak hainbat bilera prestatu ditu. Azaroaren 27an merkatariakaz batuko dira, 19:00etan udaletxean. Abenduaren 4an, barriz, gazteen txanda helduko da, ordu eta leku berean. Eta iaiz legez, herriko lau gune nagusietan auzo-bilerak antolatuko dituzte: abenduaren 13an Sopelmarreko egoitza sozialean, 14an Arriaterako egoitza sozialean, 17an Sopelako herrigunean (udaletxean) eta 18an Larrabasterrako Iberre Institutuan. Bilerak guztiak 19:00etan hasiko dira. Horretaz gain, Udalak inkesta banatuko du etxe guztietan, herritarrek euren lehenetsunak zeintzuk diren esan dezaten, eta web orri barria martxan jarriko dute.

AZAROAREN 25EAN, MANIFESTUA PLAZAN

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko, hainbat ekimen antolatu dituzte Udalak, Berdintasun Sailak eta Itzartuk. Azaroaren 24an *Damas, Señoras y Mujeres* antzezlan eskainiko dute Kurtzion, 20:00etan. Hilaren 25ean, barriz, manifestua irakurriko dute udaletxe plazan, 18:00etan, eta horren ostean helduentzako ipuin-kontalaria egongo da entzungai.

ERROMERIA SAN ANDRES EGUNEAN

Ohiturari eutsiz, azaroaren 30ean San Andres ospatuko dute Sopelako izen bereko basilizian. 11:00etan txistulariek herria zeharkatu eta orduubete beranduago meza izango da. Horren ostean aureskua, hamaiketako eta erromeria etorriko dira. Doako autobus zerbitzua egongo da basilizara joateko.

Hamaika ekimen euskaraz

Antzerkia, triki-poteoa, tailerrak, mahainguruak... ederto pasa Euskararen Astean!



Bodologuak antzerkia eskainiko dute abenduaren 1ean

Xabierko Frantzisko Deunaren egunean, abenduaren 3an, hain zuzen ere, ospatuko da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta horren harira, egitarau oparoa prestatu du Sopelako Udalak. Euskararen Astea azaroaren 28tik abenduaren 3ra arte ospatuko da, eta adin eta gustu askotarako ekimenak antolatu dituzte.

Mahainguru batek emango dio hasiera asteari. Fredi Paiak gidatuta, Uribe Kostako iragana, oraina eta geroa izango dute hizpide, eta Gotzon Elortzaren dokumentala eskainiko dute. Hitzordua,

19:30ean Kurtzion. Hurrengo egunean Gotzon Barandiaran idazlearen eskutik Katamalo poema liburuaren inguruko literatura-solasaldia izango da Kurtzion, 19:00etan. Barikuan, azaroak 30, triki-poteoaren txanda helduko da, 20:00etan frontoian, Onintza Enbeita eta Fredi Paia bertsolariakaz. Asteburuan antzezlan bi eskainiko dituzte: larunbatean 20:30ean *Bodologuak* eta domekan 18:00etan *Cirque Déjàvu*. Amaitzeko, abenduaren 3an eguzkilore brotzeak egiten ikasteko aukera egongo da Kurtzion, 17:00etan hasita. ○

Joana Lopez de Guereñu Ruiz > Medicus Mundiko kidea
 “Bertso-paper lehiaketagaz emakumeon erabakitze-eskubidea aldarrikatuko dugu”



Lehiaketan parte hartzeko epea abenduaren 7an amaituko da

Genero indarkeriaren kontrako bertso-paper lehiaketa antolatu dute Medicus Mundi elkarteak, ALBEK eta Sopelako Udalak, “Nire gorputza, nire erabakia” lelopean. Joana Lopez de Guereñu Larrabasterrako auzokideak txapelketaren barri emon digu.

—Zein helburugaz antolatu duzue bertso-paper lehiaketa?

—Proiektu osoaren helburu nagusia emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzea da, eta modu zabalagoan aldarrikatzea emakumeok gure gorputzaren eta sexualitatearen inguruan erabakitze daukagun eskubidea. Halaber, tokian tokiko kontsumoa sustatu nahi dugu (saria herriko dendetan xahutu beharko da) eta Sopelako elkarteakaz harreman estuagoa lortzea.

—Eta bertsolaritza izango da horretarako bitartekoa...

—Hori da, lehiaketa Sopelako auzokide guztiei zuzenduta dago, batez ere gazte-

ei. Bertsoak idatziz aurkeztu beharko dituzte, eta gaia genero indarkeria da, beren-beregi emakumeok gure gorputzaren inguruan erabakitze dugu eskubidea. Epea abenduaren 7an amaituko da. Posta arruntez edo posta elektronikoz bidali beharko dituzte, educa.bizkaia@medicusmundi.es helbidera.

—Bertsoak egiten ez dakitenentzat ere tailerrak eskainiko dituzue, ezta?

—Bai, tailerrak eskainiko ditugu gaia lantzeko eta bertsolaritzaren egiturak

«Tailerrak eskainiko dira bertsolaritzan eta gaian sakontzeko»

ikasteko, euskaltegian, Ander Deuna Ikastolan, eta beste bat herri osoari eskainia. Sari-banaketa abenduaren 14an egingo dugu, 60 lagunentzako bertso-afari batez Sopelako frontoian. Parte-hartzaileetaz gain edozein lagun etorri daiteke afarira; txartelak euskaltegian eta frontoian egongo dira salgai. ○

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
 etxera eroango dizugu
 egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
 Tf. 94 491 27 34

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
 Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEUNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
 Tf. 94 676 02 66
 Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA
 Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
 48600 Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Rosi Escalona > Arte-apaingarrietan aditua

“Ez dut inoiz pintura bakarrik duen koadro bat egiten, material asko nahasten ditut: kartoia, oihala...”

Arte-apaingarrietan aditua dugu Rosi Escalona Kurtzeko auzokidea. 20 urtegez bere kontu ikasten hasi zen, eta joan barri den urrian Esku Art izeneko estudioa zabaldu barri du Sopelan.

—Zer dela eta hasi zinen arte apaingarien munduan beharrez?

—Beti gustatu izan zait artearen mundua. 20 urtegez gutxi gorabehera arte-apaingarrietan nire lehenengo lanak egiten hasi nintzen, beti nire kontura. Eta bost urte beranduago denda bat zabaldu nuen Mungian lagun batez; zortzi urtez izan genuen zabalik.

—Zein teknika mota lantzen duzu zure lanetan?

—Akrilikoak egiten ditut, baina beti material asko nahastuz: kartoia, oihala, papera, plastikoa, kristala eta abar. Ez dut inoiz pintura bakarrik duen koadro bat egiten, teknika ugari erabiltzen ditut. Gainera ez daukat estilo zehatzik, momentuaren arabera izaten da.

—Eta nondik hartu dituzu bada zure erreferentziak?

—Autodidakta izan naiz, baina urtero ikastaroak egiten ditut material barrien erabilerak ikasteko. Eta gero ikasitakoa



Sopelan dago Rosi Escalonaren estudio barria

koadroetan eta beste zeregin batzuetan erabiltzen dut; altzariak zaharbarrituz e.a. Erabiltzen ez diren material ugari aprobetxatzen saiatzen naiz, irudimena erabiliz.

—Eta posible ikusten duzu zure artelanak salduz bizitzea?

—Gura nuke, baina ez, ezinezkoa da orainoz.


—Sopelan zabaldu barri duzun estudioan, zure lanak erosteko aukera dago...

—Bai, Esku Art deitzen da, eta bertan, nire lanak eta eskulanak egiteko materiala saltzeaz gain, arte-apaingari eskolak eskaintzen ditugu. Edozein pertsonak parte har dezake ikastaroetan, nahiz eta oinarriak ez izan arte-apaingarrietan. Baldintza bakarra gustuko izatea da, ez du inporta honetaz piperririk ez jakitea; guztiok atera dezakegu barruan dugun artista. ◯

Info+: eskuart@gmail.com

Fanos Naturalista Elkarte > Gorliz berez lanaren sortzaile

“Proiektuak jendeari Gorlizko aberastasun naturala helarazi nahi dio”



Melendez, Asier Ayala, Roberto Fdez. Sasia, Luis Tabera eta Koldo Ugartetxe dira autoreak

Orain bost urte ekin zioten proiektua egiteari, eta daborduko hirugarren liburur-emanaldia kaleratu barri du Fanos Naturalista Elkarteak: *Gorliz berez* lana. Hiru lanek Gorlizeko altxor naturalak izan dituzte ardatz nagusi. Proiektu honen inguruan gehiago jakiteko asmoagaz, Fanos Naturalista Elkarteak kide, eta liburuaren egile batez berba egin dugu, Anton Melendezegaz hain zuzen. —Zein helburuz hasi zineten liburu-emanaldiak kaleratzen?

—Gure helburu nagusia izan da jendeari helaraztea Gorliz dagoen aberastasun naturala; eurek jakin dezaten ingurua izugarria dela eta gorde behar dutela. Azken finean, gorliztarrek, jendeak, oro har, balora dezan zer daukagun gure inguru hurbilean.

—Zein gai lantzen dira lan honetan?

—Aurretik beste gai batzuk landu ditugun arren, oraingo liburuan dunak dira

ardatz nagusia; horrela, lan honen hasieran historikoki dunak zer diren azaltzen dugu, baita horiek nola sortzen diren ere. Horrez gain, Gorliz duden dunen artean hiru mota nagusi daudela aipatzen dugu. Oro har, Gorliz ditudun

«Dunak zer diren eta nola sortzen diren azaltzen da hirugarren lan honetan»

gun dunen inguruan jardun dugu liburuan; horiek irudi bidez agertzen ditugu. Gainera, irudiekin batera azalpen ugari ere batu ditugu hirugarren emanaldiak; batzuk azalpen zientifikoak ere badira.

—Hemendik aurrera... zein asmo daukazu, erronka barien bat?

—Dagoeneko laugarren alea sortzen ari gara; laugarren lana artadien ingurukoa izango da; aurrerantzean ere, beste bi gehiago kaleratzeko asmoa daukagu, eta horrela izatea espero dugu. ◯

uk zure publizitatea hemen!
publiuk@aldizkaria.biz
 Tf. 944 911 337

OSABIDE HORITZ KLINIKA
 Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
 ALGORTA
 94 430 76 96

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
 Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Garaizar
 barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
 Illeta kalea 1 • ALGORTA

zaindu
 Esku Terapia Zentrua
 Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
 Doctor landa 4, Sopela
 Telf.: 946026779

AZAROAREN 25EAN ZENBAIT ALDARRIKAPEN URIBE KOSTAN BARRENA

Emakumearenganako indarkeriaren aurkako naizoarteko egunaren harira ugari dira herriz herri antolatuko diren ekimenak. Horien artean, Gorlizen Uribe Kosta Mankomunitateko ekitaldi nagusia egingo dute. Horretan, "Emakumeen hitza" antzerkia ikusgai izango dute, ondoren, adierazpenen irakurketa egingo da, eta azkenik, flashmob-a egingo da bertaraten den jendeagaz. Ekimenei eguerdiko 13:30ean hasiera emango zaie Eleiz plazan; halere, euria eginez gero, Gorlizko pilotalekuan izango da ekitaldia.

URDULIZEN UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ESKARIA EGITEKO EPEA ZABALIK

Urdulizen 28 Udal Etxebizitza Tasatu esleitzeko eskakizunak aurkezteko epealdia irekia dago. Horrela, zozketan parte hartzeko interesea duen orok aukera izango du hemendik aurrera izena emateko. Interesatu-ek Urdulizko Udaletxearen bigarren solairuan eskakizun-orriak betetzeko aukera izango dute; horrenbestez, behar bezala beteriko eskabide-inprimakiak aurkezteko epea, 3 hilabetekoa izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik, urriaren 23tik hain zuzen ere. Halere, epe hau Urdulizko alkatearen erabakiz luzatu ahalko da.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Urduliz

Urdulizko **Udalak aintzat** hartuko ditu Agenda 21 programarako **ekarpenak**



Udalak 2013ko maiatzerako plana diseinatua egoteko asmoa du

Agenda 21eko tokiko ekintza-planen programa barrizteko posesua abiatu dute Urdulizen. Horrela, Udalarri dago-kio orain balantzea egin eta etorkizuneko plangintza zelan prestatu aztertzea. Horren harira, joan den irailaren 20an, urduliztarrek aukera izan zuten udalerriari buruz zuten iritzia emateko; bertan, hobetu beharreko alderdiak zein eskariak egiteko abagunea izan zuten. Aurrerantzean, barriz, prozesu parte hartzaileagaz jarraituko du Udalak; eta horretarako, hainbat eztabaida-foro bultzatuko ditu. Foro horietan aurreko irailaren 20an egindako proposamenen inguruan eztabaidatuko da. Norbanakoen parte hartzeaz gainera, Udalak Urdulizko gizarte eragileak, taldeak eta elkarteak eztabaidan parte hartzera gonbidatuko ditu. Esan bezala, iraila akabuan, Tokiko Agenda 21eko barrizterako egindako lehenengo saio parte-hartzailearen ostean, ugariak izan ziren

arlotan ezberdinetan, herritarren ekarpenak; besteak beste hirigintza, mugikortasuna, gizarte-ongizatea eta kulturaren proposamenak egon ziren. Bada, ekimenak arrakasta erdietsi zuen; izan ere, guztira urduliztarrek egindako 245 proposamen jaso ziren. Ekarpenen artean,

Irailaren 20an urduliztarrek egindako 245 ekarpen batu ziren; orain, horiek eztabaidatuko dira

adierazgarriena zera izan zen; bertan aldarrikatu ziren herri-azpiegiturak, horien artean, udal-igerilekuak eta kiroldegia. Bestalde, urduliztarrek gehien kezkatzen dituen arazoak langabezia da. Ekarpen horiek guztiak zein parte hartze prozesuan azal daitezkeen beste batzuk kontuan hartuko dira Tokiko Agenda 21 berria prestatzeko. Horrenbestez, Urdulizko Udalak 2013ko maiatzerako plana diseinatu gura du. ○

Aza. 20 - Abe. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

▶ **Amaia Leonardoren olioak.** Azaroaren 1etik aurrera. Altzagako Izarra tabernan.

GETXO

▶ **Hitz Enea (Oskar Alegria).** Azaro osoan. Algortako merkatuan.
▶ **Potxo Onandiaren olioak.** Azaro osoan. Algortako Torrean aretoan.

ANTZERKIA

LEIOA

▶ **En la luna.** Azaroak 23, 20:30ean. Kultur Leioan. 15 euro.
▶ **Ali Baba eta 40 lapurrak.** Azaroak 25, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

GORLIZ

▶ **Amores y desamores.** Azaroak 24, 19:00etan. Sertutxan.

ERANDIO

▶ **Perra vida, dulces sueños.** Azaroak 24, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 3 euro.
▶ **Ipuin kontalaria.** Azaroak 29, 18:00etan. Astrabuduko liburutegian.
▶ **Splash.** Abenduak 1, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. 5 euro.

GETXO

▶ **Sombras del mundo.** Azaroak 25, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

SOPELA

▶ **Bodolaguak.** Abenduak 1, 20:30etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.
▶ **Cirque Dejavu.** Abenduak 2, 18:00etan. Kurtzion. Umek 3 euro, nagusiek 5 euro.
▶ **Nortasunaren bila.** Abenduak 3, 19:30etan. Kurtzion. Doan.



Info+: www.ruperordorika.com

▶ Kontzertua

Ruper Ordorika Kultur Leioan azaroaren 24an

Kontzertua eskainiko du Ruper Ordorikak azaroaren 24an Kultur Leioan, Topagunearen Udagoieneko Osteraren barruan. Oñatiko musikariak *Hodeien azpian* bere hogeigarren diskoko abestiak joko ditu, baina betiko bere kantuak entzuteko parada ere egongo da: "Literaturara besarkaturik, ametsak, barneko adierazpenak eta mamuak azaleratzen dira; gizakiaren patuaren oroitzapena, kezketatik ihes egin eta erlaxatzeko aukera izan dezagun". Ordorikagaz batera arituko dira Arkaitz Miner (gitarra, mandolina eta biolina), Lutxo Neira (baxua) eta Hasier Oleaga (bateria). Emanaldia 21:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euroan eros daitezke Kultur Leioan bertan.

• **Non:** Kultur Leioan • **Noiz:** Azaroaren 24an, 21:00etan

MUSIKA

BERANGO

▶ **Impromtu.** Azaroak 23, 19:00etan. Berango Antzokian. Euro bat.
▶ **Nacho Duato eta Dantza Garaikidearen Konpainia Nazionala.** Azaroak 23, 19:00etan. Berangoetan.

GORLIZ

▶ **Lirain abesbatza.** Azaroak 24, 19:00etan. Elizan.

ERANDIO

▶ **Dantzaldia: Pergola orkestra.** Azaroak 25, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean.
▶ **Santa Ceciliaen omenezko kontzertua.** Azaroak 30, barikua, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

LEIOA

▶ **Lori Watson & The Rule of Three + Manran.** Azaroak 30, 21:00etan. Kultur Leioan. 20 euro.

ZINEMA

BERANGO

▶ **Niko eta izarretako bidea.** Azaroak 24, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO

▶ **Barrura begiratzeko leihoak.** Abenduak 1. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan.

LEIOA

▶ **Zuloak.** Abenduak 1, 2 eta 3, 20:00etan. Kultur Leioan.

BESTEAK

BARRIKA

▶ **Hitzaldia: Gizonduz elkarte.** Azaroaren 22an.

PLENTZIA

▶ **Kantagune.** Azaroak 23, 19:00etan. Kristo basilizan.

GETXO

▶ **Hitzaldia: eraso sexualak (hizlaria: Manuela Torres).** Azaroak 23, 19:00etan. Villamonteko kultur etxean.
▶ **Harrera elkartearen aurkezpena.** Azaroak 29, 19:30ean. Abian elkartearen.

SOPELA

▶ **Literatur solasaldia: Katamalo poema-liburua.** Azaroak 29, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.

BERANGO

▶ **Sei-Herriren Ibilaldi Neurtua.** Abenduaren 2an.

ERANDIO

▶ **Berbatxangoa: Uribe Kostako dorretxeak.** Erandiotik Plentziara, Berangotik pasatuz. Abenduaren 2an.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Ez daudenen eguna

Azaroaren lehenengoan inguruko kanposantuak lepo betetzen dira; orduan, ez daudenen oroitzapenek indar handiagoa hartzen dute, eta haiei (euren gorpua gordetzen duen lekuari) malenkoniaz zein maitasunez betetako lorak, laztanak zein keinuak erosten dizkiegu. Era horretan adierazten dugu ez ditugula ahaztu; horrela, egun bakarreko omenaldian urte osoko hutsunea inoiz baino biziago daukagu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Betiko bidea

Trena Algortan, 1985ean

Argazki hau ikusi eta pentsatu dugu: noizkoa ete da? Zaharra emoten du, baina 1985ekoa da. Algortako tren geltoki ingurua da, Telletxe kalean. Tren haiek berdeak ziren eta egurrezko eserlekuak zituzten; gerora ordezkatu zituzten tren zuri-urdinek eta, 1995etik aurrera, metro grisek. Jatorrizko trenbidea irudia baino ehun urte lehenagokoa da: 1887an eraiki zuten Bilbotik Aretarainoko bidea eta 1893an Aretatik Plentziarainokoa, bide estukoak biak; eta 1928an hornitu zituzten argindarrez. 1965etik aurrera FEVEren menpe egon ziren bide estuko trenak eta, 1982tik aurrera, Eusko Trenbideak enpresaren menpe. Beraz eta, bitxia badirudi ere, 1887 eta 1893 artekoa da gaur egun metroak erabiltzen duen bidearen gehiengoa, moldaketak moldaketa. Argazki hau dugu historia horren lekuko.

[berbetan]

Urrutiko euskal idazle horren antzera, *“Portuko tabernara sartu eta marinelen -arrantzaleen, piraten- lekuan eseri naiz”*. Kafesne bi, itsasoak tristura dakarren egun horietakoan. *“Gure istorioak marinelen zaharren istorioak dira, ezteietara doan gonbidatuari, gu entzuten geratzeko apenas astirik gabe doan jendeari kontatzeko”*. Roman Deustok (Portu Zaharra, 1955) *“Faneka”* (paneka arrainetik eratorria) aita arrantzalearen goitizena oinordetzan hartu du. 28 urte eskaini dizkio itsasoari, oraintsu aurre-erretiroa hartu du, osasun kontuengatik. Arrantzale, patroiz eta armadore. Algortako Portu Zaharreko egurrezko azken arrantza-ontzia, bere Txoritxu, laster agurtu beharko du. Portu Zaharrean gaur egun Karin-en eta beste batean, ezizenez *“frantsesa”* den beste baten arrantza-ontziak baino ez dira lotzen; baina, ez dira egurrezkoak...

Roman Deusto

“Faneka”; enbata, eta barea (?)

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan erabaki zenuen arrantza ogibide gogor horretan jardun gura zenuela?

—Aita arrantzalea zen. Hemen arrantzan ez zen lanaldi osoz jarduten; udan arrantzan, neguan txaletetan, enpresetan, jabeen fabriketan lan egiten zuten. Neguriko jendearentzat lan egiten zuten marinela ziren, hein berean arrantzan egiten zutenak, ahal zutenean, uda partean gehien bat. Amak arrantza saltzen zuen. Hala bizi izan ziren nire gurasoak, eta esango nuke aitite-amamak ere berdina antzeko. Hiru neba-arreba gara, eta anaia ere boladaka etortzen zen itsasora nigan. Antzina-antzina izan ziren arrantzaleak, baina aitaren esanetan eta bere garaiak ezagutu dudana-gatik, hemen, arrantzan %100 ez zuen inork lan egiten. Nik arrantzan jardun dut, lanaldi osoan, 1985etik oraintsu arte; lehenago, lanaldi osoan arrantza-ontzirik ez dut ezagutu. Delineatzaile legez lan egiten nuen, eta aparejadore izateko ikasten nengibilen; ikasketak egin bitartean, lanean, nire aita marinela zen enpresan, Sener-en. Baina, beti itsasoa eta natura gogoko izan ditudanez, eta sasoi batean gizarte gatazka

batzuk egon zirenez... itsasora egin nintzen! Arraindegia zabaltzeko ideia ere baneukan garai hartan, baina azkenean, itsasoagaz bakarrik lotu nintzen! Itsasoa oso esker txarrekoa da, oso gozaka. Halere, 28 urte emon dizkio! Oso gogoko dudalako, egitekoetatik gogokoena, eta ondo moldatu naizelako... Izorratuta, baina berari helduta, aurrera egin dut. Itsasbaterrean arrantza-tresna xumeak arrantzan jardun dut, “artes menores” delakoan. Litzentzia horregaz, oro har, danetan jardun

“Itsasoa oso gozaka da. Halere, 28 urte emon dizkio! Oso gogoko dudalako; izorratuta, baina hari lotuta”

dezakezu: tretza, nasa, sare, hegaluzerakoan ere e.a. Sasoiaren sasoian jarduten dugu, urte osoan kontu berean ibiltzea aspergarria da; batean sareakaz ibiltzen gara, bestean tretzakaz itsas aingirak harrapatzen, hurrengoan amuagaz berdelatan, ostean itsaskiak jasotzera e.a.
—Txoritxu da, izan da, 1984an eskatu,


1985ean sortutako zure arrantza-ontzia.

—Neuk ipini nion izena, osaba batengatik. Areetakoa zen, eta haren goitizena *“Txori”*. Honek guztiak asko hunkintzen nau... Haren omenez ipini nion. Hil egin zen... ez zuen arrantza-ontzia ezagutu...

—Urte hauetan danetan arrantza eta moduak aldatuko ziren...

—Aldaketa asko ezagutu ditut; onerako zein txarrerako. Arrantza, oro har, urtaroren arabera da, batzuetan gehiago harrapatzen duzu, besteetan gutxiago. Urte

batzuk harrapakin batzuetarako onak izan daitezke, eta beste batzuetarako txarrak, eta alderantziz. Halere, eragin eta ondorio argia izan du Abrako ura garbitu izanak; ondorio oso onak eragin ditu, esaterako, ordutik arrain mota ezberdin gehiago sartzen delako, ostera, nasetako edo otarretako (izkira handiak, nekorak e.a.) ko-



puruak behera egin du, ez ei dutelako ur garbia maite, ur lohia ez, baina ur arreagaz gehiago harrapatzen genuen. Batez ere izkira handiak, ur arretan harrapariak ez dituztelako hain ondo ikusten. Halakoei dagokienez, ura garbitzen joan diren heinean, gero eta gitxiago hartu dugu. Gaur gurean ia desagertutako lanbidea izateraino, izan ere, gaur bertan bakarria duzu orain hor nasa gitxi batzukaz... Orain 15 urte edo, hemendik (Portu Zaharretik) eta Galaraino, 2.000 nasa edo egongo ziren! Eta denok betetzen genituen otarreak e! Ura garbitzean itsaskiek etsai edo harrapakari gehiago dituztenez... Itsaskien etsai indartsua hamarratza da, ikaragarria, edo urraturu, txibihezur zein aingirek ere dandana jaten dute. Lehen neguan, urritik abendura danok ibiltzen ginen itsaskitan, 10-12 arrantza-ontzi horretan bakarrik... Bestalde, bestelako arrantzak sasoiak ditu, batzuetan pentsatzen duzu horrezkero ez dagoela halako arrainik, eta bat-batean halako urte batean barriro harrapatzen duzu. Merlenkarako urte oso txarrak izan dira, kariokarik ia harrapatu ez genuen urteak; murrizketa-neurri eta kuotak direla-eta, itzuli egin da eta kopuru handitsuan.

—**Ontziolek ontzi itsusiak egiten dituzte la pentsatzen ei duzu.. Zuk diseinatu zenuen zure arrantza-ontzia?**

—Azken boladan, plastikozko ontziak egiten dira, poliesterezkoak. Aurrerantzean, egurrezkoak ez da egingo... Arotzak ere desagertuz doaz. Orain hondoraziko dugun Txoritxu, ez da nirea delako, bera lako ehundaka hondoratu dira aurretik, monumentuak dira, gorde beharreko ondare! Ez delako barriro horrelakorik egingo! Txoritxuri neuk eta Jose Polok emon genizkion formak-eta; Santoñan egin zuten. Santoñako ontziolan egiteko moduak ez ziren hemen erabiltzen zirenak, branka eta popa lirainagokoak. Arotzari hala eta hola egin behar zuela esan genion, eta hark zur eta lur begiratu! Amaitzean, gorputz ederra lotu zitzaioala konturatu zen. Ontzi itsusiak egiten direla uste dudalako kontu hori

orain gitxi bertoko ontziola batek egindako ontzitxoei eman dien itxuratik dator, ez da batere polita. Neuk ere beste ontzi bat egiteko asmoa banuelako, horregatik ibili nintzen saltsa horietan. Gura nuen moduan egiteko ezetz esaten zidan, moldeak eta aldatu beharko zituelako, eta hori oso garestia da... Ez zuen interesik, handik gitxira itxi zuen ontziola...

“Txoritxu ondare legez lotu izan balitz, eskola ipin zitekeen, erabilera didaktikoa emon, baina ez dute gura izan...”

—Txoritxu ur-handietan hondoratuko da laster. Betiko. Zelanbait gordetzeko ahalegina egin duzu...

—Getxoko Udaleko zinegotzi bati eskaini nion, monumentu edo oroigarri legez lot zedin. Erantzuna: mantenua garestiegia zatekeela. Zuek ere berandu jakin, eta argitaratu duzue; agian, danon artean zerbait egin genezakeen, hor (Portu Zaharreko orubean) lot zedin oroigarri legez, baina... Badoa. Desmuntatzen, desegiten gabiltza orain, burdina kentzen, hondoratzeko. Madriletik esaten dizute non hondoratu, gure inguruko gainontzeko ontzi danak ei dauden lekuan, Villanotik iparralderantz 12 bat itsas miliara. Hondoratzeko baimeen zain nago, horiek eskuratuta, eguraldi ona egiten duen egunen batean... Ondare modura lotu izan balitz, zelanbaiteko esko-

“Portu Zaharrera turismoa erakarri gurako dute, baina ez dute batelik ikusiko, are gitxiago egurrezkoak!”

latxoa-edo ipin zitekeen, erabilera didaktikoa emon: umeei ontzia erakutsi, zelan egiten diren azaldu, ogibidea zertan datza, arrantzan egin, sareen makinak zelan funtzionatzen duen, antxoak zelan harrapatzen diren, gela batean azaldu hegaluze-lata hala egiten da, arrantza-txankuak zein itsasontziaren aparailuak, trefza, kordelina ze-

lan prestatu, trefzagaz zer harrapatzen den e.a. Horiek danak erakutsi eta irakatsi ziratekeen, kultura kontuak dira, baina horietan ez du inork pentsatzen. Ikastolak ortuko kontuetara heldu dira, itsasokoetara ez! Umeei arraina jan dezatela gura dute, ostera, ume askok ez daki antxoak, hegaluzea latan jaiotzen diren ala... Baina, beste belaunaldi batek egin beharko du...

—Portu Zaharra asko aldatu da, ezta?

—Portu legez galtzen, desagertzen, dabil. Udala Portu Zaharraz turismoagatik baino ez da arduratzen, ez da Portu Zaharrenean jatorriaz akordatzen. Portu Zaharra ederra eta turistikoa bada arrantzagatik da. Arrantzak zehaztu zuen gainontzeko dana; auzunearen egitura, batelak uzteko lekua, geografia bera, bide danak batelak zeuden lekura, portura, jaisten direlako e.a. Hori dana ahazten dute. Portu Zaharrera turismoa erakarri gurako dute, baina ez dute batelik ikusiko. Turismoan baino ez dabilta pentsatzen, ez dute herria buruan. Kanpokoak erakartzeko egin beharrekoaz baino ez dira arduratzen; barruan eta barrukoakaz zer egin behar den pentsatu beharrean. Egurrezko azken batelak apurtzen ari dira; talde bat horiek konpontzen ahalegintzen dabil, eta

da! Nire proposamen bat, jende nahikotxoren oniritzia duena, hau da: hor behean betetako orube horretan, ur-gune bat egitea, batelak iraunkor egon daitezten bertan. Portuari portuarena dena emotea, hori itsasoari ostutakoa delako! Zuloa egitea, urez beteko litzatekeena noski, eta zelanbaiteko zubitxo edo tunel batetik itsasorako urtekerak lukeena. Surfarienezko urte-

“Portu Zaharra maite dut, portu legez salbatu gura dut! Bestela zaharra baino ez da izango! Proposamen bat...”

era-gune ere izango litzateke, haitz artetik urtetan direlako orain, arroka busti eta goroldiotsuetatik, egunen batean ezberren bat... Barriz, egingo balitz, surfarienez ere pentsatutako portua izateagatik ezagun izango litzateke Portu Zaharra! Hondartzatxo bat, dutxak... Antzinako eta gaur egungoaren arteko, eta arrantzaleen eta surfariaren arteko alkarbizitzaren erakusgarri... Hori da bihurtu turismoa! Askotan eta sakon pentsatu dudana egitasmoa da. Batelak igo-jaisteko (eskuko) garabitxo bat lukeena; orain bizpahiru lagun noiz agertu itxoiten egon behar duzu batela uretaratu ahal izateko... Bizpahiru batel lotuko dira hemen arrantzara urtetan direnak, laster bat ere ez! Honek bizirik segitzea gura bada, portu izaten jarraitu behar du, bestela Zaharra baino ez da izango! Udalekoek beti kontu beragaz nabilela diote... Nik Portu Zaharra maite dut eta portu legez salbatu gura dut! Orube hori “eraikigarritzat” dago;

eta geure etxeak-eta ezin ditugu ukitu ere egin. Ondo deritzot, baina ez litzateke duina izango Udalak hor hotela egitea! Orube horretara Portu Zaharretik baino ezin da sartu, itsasoari lapurtutakoa da... Zergatik den eraikigarria? Usategiko ekin-tza-planaren barruan dagoelako! Ez da lotsagarria?! Portu Zaharreko ekin-tza-planari dagozkion kontuak gauzatu beharko lirate-

ke, ezta? Kontu horretaz ez dute ezer jakin gura... Baliteke, etorkizunean, alkatekeriaren bat egitea; “*hotel hori ez-dakit-zein alkatek egin zuen*” esateko... Behin, ideia modura, Kontxako La Perla bezalako bat egitea bota ziguten!! Auzokook bozkatu eta guneberdea gura genuela urten zen; gaur arte nahi hori errespetatu dute; noiz arte? Eta beti erakinak egin gura izan hori ere... Ezin da orube horretan portutxo egin, benetan?! Erraza da, bai garestia ere bai; baina, gehiekia handiagoak egin dituzte herri honetan! Hotela auzokoentzat zertarako?! Igerilekuak ere nork erabiltzen zituen?! Ez litzateke hobe hori herriarena izatea, zehatzago auzokoan onerako izatea? Egingo balitz nire semeek batel bat izango lukete hor; ziur, beste jende askok ere bai! Oraingo lekuan ez, hori amaitu da; gaur egun ez gaudelako batelak bultzatzeko prest. Lehen, udan, ikuskizun ederra zen, jende andana bateletan, hamar bat batel arrantzatik bueltan, bata besteari

laguntzen... Txalupak plastikozkoak izango diren bezala, egurrezkoak egongo ez den legez, hemen ez da batelik egongo bestelako aukerarik eskaintzen ez bada... Dirua da bai, baina hori da herrigintzan jardutea. Ez diezadatela niri turismoa aipatu; zer erakutsiko diete? Garai batean, antzina, portua izan zela? Gaztelako gazteluak erakusten dituzten bezala, aztarna-hondakinak! Balizko porturako izen-proposamena ere badaukat: Enrique Paten, nik dakidala, hemen ogibidez, arrantza ez, batelean txibihezurrak harrapatetik bakarrik bizi izan den, edo nekez biziraun zuen bakarraren omenez. Kontu asko galdu dira; lotzen diren apurrak, laster galduko dira. Gazte ginenean, Portu Zaharrean bazegoen txanel, batel, txalupak garbitzeko modu berezia, Portu Zaharreko berezko kontua zela esango nuke. Erabili ostean, jabeari garbi itzultzeko, panelak kendu, eta batela hondoratu egiten zen; uretan buelta emon, hiruzpalau lagun artean, “*buelta ezker-eskuma, ababorrera eta istriborrera!*”, airean altxa, panelak berriro ipini, eta hala batela garbi-garbi lotzen zen. Orduan hemen 25-30 batel inguru zeuden, orain bizpahiru; horietako bat jaietan apurtu eta hor dago nork konpondu zain! Udaleko aseguruak diote ez dutela euren gain hartzen. Zenbat kosta lezake konpontzeak, 50.000 pta?! Altxorak dira, egurrezkoak direlako; gainera hori hemen bertan egina da, Lucio Sansebastian zenak egiten zituen. Berak egindako, beste bi edo hiru lotuko dira oraindik, hemen bertan eginak, eta beste batel danen aldean guztiz desberdinak! o

Kofradia Portu Zaharrean, antzina

—**Kofradian ere ibilitakoa zara, bertan Portu Zaharrean?**

—Ez, bertan ez da egon kofradiarik. Hasieran Santurtziko kofradiakoa izan nintzen, eta azken urteotan Zierbenakoa. Beno, hemen antzina egon egon zen kofradia, eta kofradiako lokala ere

bada. Kontua da, nagusiek kontatu didatenaren arabera, gerra garaian, ez dakit Falangeak edo Francoren Gobernuak bere egin zuen, egoitzaz jabetu zen; eta gaur egun oraindik ez diete arrantzaleei itzuli! Gaur egun, piraguak dauden leku hori da, antzinako arran-

tzaleen kofradia zena. Bazkidedun, akziodunen kofradia izan zen, gainera; orain dela urte batzuk hil zen azken bazkidea... Eta hori ez dute inoiz ere itzuli! Portuko oraingo Batzordeak hartu egin du, eta ez die berezko jabeen, arrantzaleen, itzuli.



ANGELES ANTOLIN (PALENCIA)


Gorliz, irudiz irudi

Gorlizko Argazki Lehiaketa ospatzen ari da, daborduko 20. edizioa. Aurten 127 irudi aurkeztu dituzte eta, sariak oraindino banatzeke badaude ere, argazki horietako batzuk utzi dizkigu Gorlizko Kultur Etxeak. Herriagaz lotuta daude eta, bereziki, ingurumen-ikuspuntutik eginak daude. Lau sari emongo dute, horien artean Gorliztar Gazte Saria. Orriotara lagin txiki bat ekarri dugu, baina aurkeztutako irudi danak ikus ditzakezu Gorlizko Udalaren webgunera joz gero: www.gorliz.net

Argazkiak: **Gorlizko Argazki Lehiaketa**



ALEJANDRO AHEDO




GORKA TELLITU (GORLIZ)




OLATZ UFRUTA (GORLIZ)



JUAN JOSE ALGAR (BILBO)



"YHABRIL"



PAULINO HERNANDEZ (BARAKALDO)



NATALIA VIDAL (BILBO)



PAULINO HERNANDEZ (BARAKALDO)

Getxoko Antzerki Eskola > 30. urteurrenean, Eskolatik Utopian egitasmora

Utopian: harengana hurbildu heinean urruntzen da utopia, ibiliz bidea eginez

30 urte bete du Getxoko Antzerki Eskolak eta proiektua eraldatuz ospatuko du. Hemendik aurrera Utopian deituko da eta batuko ditu antzerkia, dantza eta perkusioa. Metodologiagatik nabarmendu da beti, formazioa eta etika maila berean ezarriz, profesioa maitatuz norbere buruaren gainetik.

Kartel batez sortu zen Getxoko Antzerki Eskola, 1982an. Claudio Nadie argentinarrek ipini zuen institutuan, antzerki-eskolak emotera zihola iragarritz. Horrela hasi ziren lehenengo ikasleak: eskualdeko beste herri batzuetan ere emoten zituen klaseak Nadien eta bere gaz hasi ziren egun Eskola daroaten asko.

Baina Argentinara itzuli zen bera eta tailerra pasatu zion Jose Miguel Elvirari. Eusko Jaurlaritzak proposatu zuen maila



Antzerkia kalera ere ateratzen dute

profesionaleko klaseak emotea eta, Getxoko Eskolak, biak mantendu zituen: eskola profesionala eta eskola amateur. Hortik aurrera, bilakatuz joan da:

hasieran Areetako kultur etxean zeuden, 1996 arte. Elvirak bere bidea hartu zuen orduan eta Aintza Uriarte, Carlos Baiges

Utopian egitasmoak batzen ditu Antzerki Dantza eta Perkusio Eskolak

eta Arantxa Iurrek jarraitu zuten Antzerki Eskolagaz, Villamonteko lokal batean; duela lau urte aldatu ziren Aiboa auzora, lehenengo Getxo II institutuko eraikinera.

Eta apurka iritsi dira 2012ra, orain une berezia bizi du Eskolak, 30 urte betetzeagaz batera: Eskola berregituratu eta Utopian kooperatiba sortu dute, antzerkia, dantza eta perkusioa uztartuz. Urtarrilean utziko dute Aiboa eta lokal



Utopian-eko sortzaileak ikuskizun batean. ARGAZKIA: Olga Ruiz

barrira aldatuko dira, Errotatxu pabilioietara, konpoketa lanak amaitzean.

Haizearen kontra

1996tik aurrera nabarmendu zen Getxoko Antzerki Eskolaren ideologia eta hezkuntza-eredua: Stalinsavsky-ren erroari jarraitu diote formazioan, baina

maila berean kokatu dute etika: *“aktore-ok bitartekoa gara mezu bat kontatzeko eta hemen ez dago lehiakortasunik”*, dio Arantxa Iurre zuzendariak. Ildo horretan, oso garrantzitsua deritzote formazioaldiari. Euren aburuz ez da bateragarria aldi profesionalagaz, beste eskola batzuetan horrela egin arren: *“lehenik formatu*

beharra dago, noski, antzezte-praktikak egiten dituzte tarte horretan, gerora agertokia arrotz gertatuko ez bazaie; besteek gure profesioa errespetatu dezaten gura badugu, guk geuk errespetatu behar dugu lehenago”.

Horrek eskatzen ei du profesioa maitatzea norbere buruaren gainetik. Horregatik dabilta haizearen kontra, *“jendartean aurkakoa gertatzen delako: nor bere buruari bigratzen dio”*.

“Profesioa errespetatu dezaten gura badugu, guk geuk errespetatu behar dugu lehenik”

Ildo horretan, garai barriei egokituz joan da Eskola beti, baita gaur egun ere. Urte txar batzuk igaro ostean, urrats handia emon dute Utopia proiektua sortuz. Hark batzen ditu Getxoko Antzerki Eskola, Izur Dantza Eskola eta Astindu Perkusio Eskola, hiru diziplinak uztartzen dituzte-eta euren sorkuntzetan. Oso argi daukate metodologia eta teknika, orain, eboluzionatu gura dute, Eskola herrira zabalduz. Azken batean, arteak mundua aldatzen ei du. ○

Arantxa Iurre > Getxoko Antzerki Eskolako zuzendaria

“Ausartak izan gara eta orain pozarren gaude, Utopia izeneko erronka barria ondo aterako dela sinetsita nago”

—Bizimodua da antzerkia?

—Aurrekoan erreportaje bat ikusi nuen atleta bati buruz. Beti korrika zebilela kontatzen zuen, bizimodua dela. Nik ere baietz uste dut, gozatzen dut honegaz eta agian nire lana eta aisia elkarregaz doaz; Nire bizitzak zentzua dauka sortzen nagoenean, zorientsu naiz horrela.

—Urteotan danetan, aldatu da antzerkia ulertzeko modua?

—Belaunaldiak aldatu dira eta, urtea-

kaz, euren erreferenteak ere bai. Gazteek eta nire belaunaldiak balore desberdinak dauzkagu eta moldatu beharra dago. Gazteak oso azkar bizi dira eta berehala hasi gura dute praktikan, formatu baino lehen; gure egiteko modua aldaketa handia da eurentzat, eta zaila da aurrekoagaz moztea: barne-gatazka handia da, eragiten die baloreak eta hezkuntzari aurre egiteko modua aldatzea.

—Herriarengana hurbildu gura duzue.

—Ez gaude ohituta elkartera: bakoitza gure aldetik gabilta eta kontua litzateke hurbiltzen gaituzten gauzak egitea. Hori lortzeko estrategiak sortzen ari gara, Getxoko kultur munduko diagnostikotik abiatuz, ez dago-eta herri-kulturarik herri honetan: kultura badago, baina programatutakoa da, herri-kultura ez da oso onartua izan herriaren kultura gisa.

—Son handiko eskola da Getxokoa, aktore askok ikasi du bertan.

—Jende asko pasatu da, eta aktore lanetan dabilta asko. Ospea dauka: kastingetan balio handia dauka bertan ikasi izanak, bertako kalitatea baloratzen da. Toki askotarako sarrera da ikasleentzat, behintzat ikus ditzaten. Izena dauka Eskolak eta ate asko zabaldu dizkie ikasleei.

—Eta orain aldi barri bati ekin diozue Utopia egitasmoagaz.

—Abiatu dugu proiektua eta urtarrilean aldatuko gara lokal barrira. Gogotsu gaude eta ilusio handia daukagu. Emoten du zoraturta gaudela baina, jakin badakigu, ondo egiten ari garela. Bost kooperatibista gara eta uste dugu ondo joango dela dana. Gainera, garaiotan horrelakorik egin ezean, hilko ginatke: ekonomiaren

aldetik zein arimaren aldetik.

—Atzera begira, zer daukazu gogoan?

—Gauza asko. Lehenengoa, institutuko eskailera igo eta antzerki tailerraren kartela ikusi nuenekoa. Gero, 1996an banatu eta Eskolan lotu ginenean Aintza, Karlos eta hirurok; eta Javigaz gero. Une txarrak ere bizi izan ditugu, duela urte bi bezala: benetan garai oso txarra izan zen. Baina ausartak izan ginen, ondo egin genuen eta eraldaketa ekonomikoa gauzatu genuen. Bakoitzak zeukan onena emon zuen eta oso harro nago gure buruagaz. Negar asko egin, baina aurrera egitea lortu genuen. Azkenik, gaurko egoeragaz lotzen naiz: pozarren gaude eta erronka barria ondo aterako dela sinetsita nago. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

ZINEBI hasi da...

Bilboko Dokumental eta Film laburren Nazioarteko **Zinemaldia hilaren 23ra arte**



Info+: www.zinebi.com

Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak eta Arriaga Antzokiak antolatzen duten Zinebi Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldiak 54. ekitaldia betetzen du. Orain dela egun gitxi abiatu zuen eskaintza oparoko egitaraua eta hilaren 23ra arte hamaika lanegaz gozatzeko aukera egongo da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 82 herrialdeetatik 3.505 film jaso dituzte aurten, eta horietatik 73k (34 herrialde-takoak; fikzio, dokumental eta animazio azpisailetan) parte hartuko du Zinebiko Sail Ofizialean; 7 Euskal Herrikoak dira: *Berrito igo nauzu* (Carlos Rodriguez), *Je me souviens* (Gentzane Martinez de Osa-

ba), *Aner* (Unai Garate), *Los perfeccionistas* (Tucker Davila Wood), *Voice Over* (Martin Rosete), *Gernika* (Angel Sandimas), *Beerburg* (Ander Mendia) eta *Bajo la almohada* (Isabel Herguera). Lehenengo biderrez, alde batetik, film laburrei begirako, Sail ofizialetik kanpoko, Infoworld Saila martxan ipini dute, eta nazioarteko 21 lan ikusteko aukera

«Getxon ere emongo dituzte lan batzuk, hilaren 19an eta 20an»

eskainiko du; bestetik, Beautiful Docs. Munduko film luze dokumentalen ikuspegia Saila ere prestatu dute estreinakoz, aurten saritutako 12 dokumentalek osatzen dutena.

Bestalde, Ohorezko Mikeldi sariak Carlos Saura zinegile espainiarrari eta Patrice Chereau zuzendari frantziarrari emotea ebatzi dute aurtengo antolatzaileek. Arriaga Antzokia, Guggenheim Museoa, Bilboko Arte Eder Museoa, Golem/Alondegia, BBK Aretoa, Barrainkua kultur etxea eta Algortako Villamonteko kultur etxean emango dira filmak eta antolatuko dira ekitaldia. Getxon, hilaren 19an, 19:30ean, Euskal Herrian ekoiztutako lanak eskainiko dira, biharamunean, Euskal Informagariak saileko beste 8 lan. ○

Zaleen testu-bilduma

Beste horrenbeste diskoren **121 zaleren idatziak Kafe aleak** musika-liburuan



Liburua atalka argitaratuko dute Kafea eta Galletak webgunean: www.kafeaatagalletak.net

Kafea eta Galletak egitasmoa kideek, Ibon Rodriguez Garciak eta Leire Lopez Ziluagak *Kafe aleak* lanaz azaldu dutenaren arabera, "2008an sortu zen *Kafea eta Galletak* egitasmoari, diskoak elkarregaz entzun eta sortzen ziguten lilura partekatzeke proiektuari" jarraipena-edo emon dion ekimena da musika-liburua. Gernikako Astran hasi ziren gogoko diskoak alkarregaz entzuten, bolumen onean eta ondoren, horien gaineko berbaldiak egiten zituzten. Gero, kontzertuak eskaintzen zituzten musikariak eskaintzen zieten diskoa aukeratzeko, eta egitasmoa zabaltzeko asmoz, parte har-

tea nahiko zuketzen pertsonen zerrenda luzea egin, eta disko bat aukeratu eta hari buruzko testu bat idazteko eskatu zieten. Hala, zerrenda luze hartako 121 lagunen beste horrenbeste diskoren gaineko testuak jasotzen ditu *Kafe Aleak*-ek. Bultzatzaileen esanetan, "bilduma honek musikari aktibo-entzule pasibo araua puskatzea" du helburuetako bat. Testu egileen artean izen ezagunak ere badira, besteak beste: Slavoj Zizek, Iban Zaldúa, Kattalin Miner, Bego Montorio, Beñat Sarasola, Igor Elortza, Myriam Garzia, Ainara Lasa, Fermin Etxegoien, Garbine Ubeda eta Gorka Bereziartua e.a. ○

dokumentala > Zuloak, Leioan

Fermin Muguruzak zuzendu eta urri hasieran estreinatu zen *Zuloak* lana emongo dute Kultur Leioan abenduaren 1, 2, eta 3an (20:00; sarrerak 4 euro balio du, astelehenean izan ezik, 3 euro). Izan balitz bezala, izan ez den talde baten gaineko fikziozko dokumentala da *Zuloak*; hau da, existitu ez den Zuloak taldearen (balizko) hastapenak kontatzen ditu. Hasi-eran Arrate Rodriguezen bultzadaz edo, Izaskun Muruaga, Naiara Goikoetxea eta Ainhoa Unzuetak osatzen dute Zuloak, hainbat taldekideren urrutzearen ostean, azkenean, Unzuetak, Tania de Sousak eta Ursula Strongek osatuko dute. Emakumez osatutako rock taldearen irudia eta ibildia jorratzen du lanak... "Fikzioan" sortutako taldeko protagonistak musikariak dira errealitatean, eta lan horren harira, batu eta kontzertu gitxi batzuk eskaintzen dabilta.

Info+: www.zuloak.com

jaialdia > trikitixa; aire, aire!

Getxoko Euskara Jardunaldien barruan, Bizkaiko Trikitixa Elkarteak antolatuta Nazioarteko Trikitixa Jaialdia egongo da hilaren 24an (19:00etan; Andres Isasi Musika Eskolan; sarrerak 8 euro balio du). Asturiaseko Javier eta Jose M. Tejedor, Okzitaniako Mirabel taldea eta Euskal Herriko Agurtzane eta Ion Elustondo, Ruben Isasi, Xabier Valle eta Argibel Euba hirokotea eta amaitzeko Tapia eta Leturiak eskainiko dute emanaldia. Horren ostean trikisesion-a egongo da Areetako Glass tabernan, sarrera doan.

diskoak

Itsasargiak
Izaki gardenak
Elkar



"Akatu" taldean ibili ostean, bakarkako bideari heltzeko garaia iritsi dela iritzita, Jon Basaguren musikariak abiatutako egitasmoa da Izaki Gardenak. Beragaz batera: Joseba Baleztena, Libe Garcia de Cortazar, Iker Fernandez eta Eneko Lezak osatzen dute amerikar kutsuko musika, pop eta rock doinuak, jorratzen duen taldea.

Udazkena
Seiren
Brian's Records



Seiren taldearen lan barriari izena emoten dion urtarok sarri amaieraren hasiera bat edo iradoki ohi du, ostera, euren argi utzi dute: "Seiren itzuli da, eta geratzeko itzuli da". Pop-a eta zeltiar doinuak abiapuntu, rock kutsudun 10 kantu itsaskorragaz osatu dute disko barria, country edo erritmo dantzagarrien ñabardurez hornituta.

1992-2012 All Stars
Gozategi
Elkar



Taldea sortu zen urtetik abiatu eta atzo berton arteko ibilaldiko abestiek osatzen duten diskoa plazaratu dute Gozategiok. Urte hauetako guztietako kanta-errepertorioak aukeraketa berezia egin eta hori da eskaintzen dituguna lan honetan; bere abesti ezagunenak Mikel Irazokiren zuzendaritzapean birgrabatu eta gero.

etorri
eta
ikusii!

MORIXA
Liburudenda

Alargorta 8 (Eusko Herria kaleko bua)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Balio-hezkuntza, 8 ipuin

Urtxintxak euskal kulturako lagun ezagunek idatzitako **Titiriteroen ipuinak** aurkeztu du

Orain dela hamar bat egun edo aurkeztu zuen Urtxintxa Eskolak *Titiriteroen ipuinak* lana, "balio-hezkuntza sustatzea asmo duen ipuin liburua". Urtaro bakoitzerako bina, zortzi istorio laburrez osatzen da, eta horien bidez "elkartasuna, parekidetasuna, kulturartekotasuna, hizkuntzaren normalizazioa eta beste hainbat balioaren sustapena bultzatzea" dute helburu.

Euskal kulturako pertsona ezagunak dira ipuinon egileak, bai bertsoen, literaturaren, zinemaren eta bai ipuin kontaketen arloan dihartutenak, hurrenez hurren: Miren Amuriza, Jasone Osoro, Mireia Delgado, Josu Martinez, Juankar Lopez-Mugartza, Uxue Alberdi, Gotzon Barandiaran eta Pako Aristi. Idatziek ko-

«Berba eta irudi, euskaraz, zeinu hizkuntzan, audioan, brailez, eta idatziz»

loretako marrazkiak dituzte lagun eta horiek ilustratzeko ardura Nagore Txintxurretak izan du, gainera Jorje Perez gure maketatzailerak algotarra izan da diseinu eta lanaren akaberaren arduraduna.

Horrez gainera, *Titiriteroen ipuinak* euskarri eta hizkuntza ezberdinetan daude, "paperezko euskarri hutsetik ha-



Lana 25 euroan dago salgai

rago, CD batean grabatuta ere badoaz, ipuinak zelan kontatu ikasteko. Baina proiektuak ez du hori soilik barnebiltzen, izan ere hezkuntza inklusiboaren aldeko apustuan urrats garrantzitsua suposatzen du argitalpen honek. Zeinu hizkuntza erabiltzen dutenek, DVD bidez edota QR kodeen erabileraren bidez, eta ikusmen urritasuna duten edo brailez irakurri gura dutenei, ipuin hauek .bra formatuan inprimatzeko aukera ere eskainiko zaie".

Ume, guraso, hezitzaile, famili, astialdi elkarteei eta abarrei begirako lana da eta 25 eurotan eskura daiteke. ○

Info+: www.urtxintxaeskola.org


liburuak



Motoa

Juan Kruz Igerabide
Alberdania

Adunako idazlearen nobela barriak 14 urteko Igor du protagonistak. Bere sos apurraz moto zaharra erosi eta lagun baten laguntzagaz konponduko du. Giro arriskuetsu batean sartuko da, bera baino zaharragoen artean, neska eder batek erakarrita. Bitartean, etxean arazoak...



Maite Zaitut, Nadia

Anton Txekhov
Elkar

Alex Orbe Ferreireoren marrazkiak daroan eta Xabier Mendiguren Elizegik itzuli duen errusiar maisuaren lan honek neska-mutil bi leran doazela aurkezten dizkigu. Haizearen ziztuarekin batera, xuxurla bat: "Maite zaitut, Nadia!". Benetan entzun ote ditu neskak hitz horiek? Ala...

[kirola]

Uxue Martinez de Goñi > piraguista

"Azken urteetan, gurean gero eta piraguismo zaletu gehiago dago; gero eta gehiago gara"



Martinez de Goñik 17 urte bakarrik baditu ere, daborduko lehiaketa ugaritan parte hartu du

Joan den azaroaren 4an Nerbioi ibaiaren VII. jaitsiera ospatu zen, bertan, Uribe Kostako ordezkapen zabalak izan genuen; horien guztien artean, kategoria mistoan Jose eta Uxue Martinez de Goñi aita-alabek lortu zuten lehenengo postua, eta gu Uxue piragusita gazteagaz egon gara, berak lehiaketa eta kirolaren nondik-norakoak kontatu diezazkigun.

—Zenbat urte daroazu piraguan ibiltzen, eta zergatik hasi zinen?

—Orain dela bost urte hasi nintzen piraguan ibiltzen, 12 urte gaz. Asko gustatu izan zait beti itsasoa, eta jakin nuenean Getxon ere kayak taldea zegoela ez nuen pentsatu, eta apuntatu nintzen. Aita, ni hasi eta pare bat urtera zaletu zen.

—Zer da piraguaren mundutik gehien gustatzen zaizuna?

—Gehien gustatzen zaidana zera da: klubean sortzen den giroa, gure artean dugun giroa. Gainera, kirol hau ez dagoenez oso zabalduta asko bidaiatu behar dugu hainbat lehiaketatan parte hartzeko; beraz, astebururo ez, baina, asko bidaiatu behar

izaten dugu, horrela, leku asko ezagutzen ditugu, eta hori oso gustatzen zait.

—Gura zenuke honetan era profesionalagoan jardun?

—Momentuz ez dut horrelakorik pentsatzen; ikasketek denbora asko kentzen didate. Horrez gain, ez dut aukerarik ikusten hemen horretan profesional moduan jarduteko; izan ere, hori oso zaila da. Ha-

«Gustuko dut klubean daukagun giroa, baita lehiatzeko bidaiatu beharra ere»

lere, lehiaketetan parte hartzen jarraituko dut, asko gozatzen dut-eta.

—Zein da piraguaren egoera une honetan; zaletasuna handituz ete doa?

—Gero eta zaletasun handiagoa dago gurean; azken urteetan, Getxon gorakada nabarmena izan du piraguismoak; berbarako, gero eta gazte gehiago animatzen da piraguan ibiltzera. Halere, gizpukoarrak bizkaitarrak baino askoz ere zaletuagoak dira; hemen jendeak apenas daki kirol honi buruz. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol
moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Jose Felix Azurmendi Badiola > kazetaria

“Ez edozein modukoetarako, baina ekintzetarako legitimitatea onartzen zen”

Erretiroa hartuta ere lanean darrai Jose Felix Azurmendi Badiola kazetariak. *PNV-ETA cronica oculta (1960-1979)* liburua argitaratu du Algortako bizilagunak. Bere bizipenak, agiriak, egunkariak eta txostenak erabili ditu kronika osatzeko, garai hartan EAJ eta ETaren arteko harremana argitzen eta ezagutarazten lagundu guran.



Daborduko liburuaren bigarren edizioa kaleratu du Azurmendik

—Kronika gisa egin duzu liburua.
—Kronikak askatasuna emoten du gauza informatiboak biltzeko eta erdi editoriala ere bada, baina kazetaritza logika batean. Gainera, arina da irakurtzeko. Gauza batzuk nobedadea dira eta beste datu batzuk argitaratuta daude aurretik, baina doktore-tesietan eta horrelakoetan; eta jendeak ez du hori irakurtzen.

—Kronika, bai, eta gainera, “ezkutua”.
—Gauza batzuk ez dira kontatu, beste batzuk txarto kontatu dira, eta beste batzuk, gitxiren artean: jendeak ez dauka horien barri. Eta tontakeria asko entzuten da: ETA horrela jaio zela, EAJ-gaz ez dakit zer harreman izan zuela, e.a. Datu faltsuak ere asmatu dituzte.

—Hain zuzen, EAJ eta ETaren arteko hasierako harremana argitu gura duzu?
—1960an Jose Antonio Agirre hil eta beragaz ixten da gerrako belaunaldia. Orduan hasten da ETA ekintzakaz. Zikloa amaitzen dut Leizaola Euskal Herrira itzultzen denean. Urte horietako historia eta egoera kontatzen dut: ETA, EAJ, Eusko Jaurlaritzarena. Baina bazegoen arriskua, ordukoa kontatzea gaurko irizpideakaz. Urtez urte, momentuko agiriakaz eta lekukotasunakaz kontatu dut gertatutakoa, arrisku hori ekiditen saiatuz.

—Esaten duzu EAJ-ko batzuek ez zituztela gaizki ikusten ekintza armatuak?
—Ez hori bakarrik. Orduan, munduan guda armatuaren aldeko giroa zegoen herriak askatzeko, eta Espainian diktadura. Ez edozein modutako ekintzetarako, baina horietarako legitimitatea onartua zegoen. EAJ-koak zaharrak ziren eta

“Gazteek ezagutu behar dute historia, arriskua dago-eta komeni bezala moldatzeko; pentsatu gaur gura duzuna, baina ez aldatu gertaerak”

ekintzetarako indarrak ez zeukaten, baina batzuek pertsonalki ETAkideei lagundu zien. EAJ-ren eta ETaren arteko haustura hasieran horregatik gertatu zen. Bestalde, EAJ-koak oso katolikoak ziren, beste garai batekoak: belaunaldi bi ziren, mundua ulertzeko modu bi. Trantsizioan bakoitzak bere bidea hartu zuen, bai-

na orduan horrela ziren gauzak.
—Kezka ere bazeneukan gazteek ez dutelako ezagutzen hau guztia.
—Gazteek jakin behar dute euren historia, arriskua dagoelako hura egungora moldatzeko komeni den bezala. Zintzoa izanez gero, gaurkoei buruz gura duzuna pentsatu, baina ez aldatu gertatutakoa.

Orain esaten da batzuk oso gaiztoak direla, komeni dela hau esatea, e.a. Baina ez. Gaur pentsatu gura duzuna, baina historia ez da hori. Aurreiritziak albortzen saiatu naiz. Esan didate batzuk haserretuko direla, eta nik erantzun: gura nuke beti berdina ez haserretzea. Gainera, gezurrik ez dago liburuan. ○

Aritz Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Mari. Ilustrazioa: Daniel Castello

Mariren koplak

Behin bakarrik egon naiz
Anbotoko damaren aurrean.

Mortal guztien gainetik
hegal egin zuen
suaz inguratuta.

Nire ondoan gelditu zen,
eta sugarren dantzak gelditu zirenean
maitemindu nintzen.

Emakume dotore,
ahots liluragarria zuen
eta izugarrizko begiak.

Bere kobazuloan eman nituen
orduak eta orduak
jakinduriaren mintzoa entzuten.

Zazpi urte eman ondoren
Oizetik zetorrela
kontatu zidan.

Oraindik dau(z)kat
berak opari(tu)tako
urrezko txanponak.

Inoiz ez dut ahaztuko momentu hori...

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx
txakolina

Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Txokolate muffina

gozozaleen tentaziorik handiena



Intxaur eta txokolate zatitxoek muffinaren ahogozoa areagotuko dute

Aurreko batean pintxotan atalean ere, oraingo jakiaren lehengusu-lehengusina ekarri genizun: peperone muffina. Gaurkoan, barriz, txokolatezko muffina dakarkizugu, zure unerik mingotsenak gozo ditzazun. Lehenengo eta behin, gaurko muffina egiteko gurina mikrohinetan edo zartaginean sutan jarriko dugu ur dadin; ostean, txokolateagaz gauza bera egingo dugu; sutan jarri, hura ere urtzeko. Horrela, urtutako gurina, irina, azukrea eta legamia elkarregaz nahasiko ditugu; gogoratu osagai guztiak ondo-ondo batu behar ditugula. Bestalde, arrautzak irabiatu, eta esneagaz nahastuko ditugu, ondoren urtutako txokolatea gehitzeko. Horrela, orain artean erabilitako osagai guztiak elkartu eta

ondo irabiatuko ditugu. Osagai guztiak elkarregaz ditugula, orduan zatitutako intxaur zatiak eta txokolate zatiak botako dizkiogu oreari. Orea ondo nahasi dugunean, moldeak gurinaz igurtzi eta azkenik, orea moldeetan jarriko dugu. Horrela, muffinak hogei minutuz 180 gradutan labean izango ditugu, ostean eta akabuan, eurekaz gozatzeko. Ikus dezakezun bezala, benetan erraza da horrelako muffinak egitea; gozozalea izanez gero, ahulezia nagusitu, eta ez diozu denbora luzez tentaldiari eutsiko, ez izan dudarik, erraz txokolatearen hatzaparretan jauziko zara! o

Osagaiak: 175 g irina, legamia, azukrea, txokolatezko estaldura, 90 g gurina, 180cl esne, 2 arrautza



LAIAK Taberna




BASARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

[horoskopoa]



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati@algorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURVENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Azkenean hotzak hartu zaitu eta ohean sartuta zaude, ondo tapatuta eta sukarrak jota. Patxadaz hartu: lo egin, botika hartu eta itxaron... Uste baino lehenago osatuko zara.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Gero eta motzagoa dugu eguna eta askoz luzeagoa gaua, horregatik zure saltsan zabilta azken asteotan, gustura, gaueko ibiltari hori! Zure uluek dardarak eragiten dituzte...

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Gurasoek paga kenduko dizute oso txarto jokatu duzulako eta, orain, lanak izango dituzu lehenera bueltatzeko. Hurrengorako badakizu zer egin eta zer ez. Eutsi!

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Tematuta zabilta azken aldia gai horregaz, eta, lagunak aholkatu arren, ez duzu burutik kentzen. Saiatu ahazten, gero negarrak etorriko dira bestela!

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gidatzeko baimenaren azterketa egingo duzu eta aztoratuta zabilta, urduri eta kezkatuta. Lasai egon, ederto dakizkizu gaiak eta primeran egingo duzu proba!

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aste akabua baliatuko duzu aspaldiko lagun bati bisita egiteko, baina erabat aldatuta ikusiko duzu: formal-formal, lanagaz eta familiagaz arduratuta. Garai zaharrak joan dira...

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Azkenaldian hainbeste zubi, opor-beharrez zaude orain: ezin loak hartu, azkura... Abstinentzia-sindromearen zantzuak dira. Gabonak arte itxaron beharko duzu hura kentzeko...

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Liburu interesgarri bat aholkatuko dizute eta harrapatuko zaitu erabat. Edozein une baliatuko duzu irakurtzeko. Baina, arren, lanari ere kasu egin, botako zaituzte bestela!

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Uda aspaldi joan zen eta jai gitxi azken aldia: nahiko apal zabilta asteotan. Kendu tristura eta antolatuta plan polit bat lagunakaz, seguru baten bat animatuko dela parranda egitera!

META


(Irailak 17 urriak 16)
Aurrekoan gaizki aparkatu zenuen autoa eta udaltzainen isuna iritsiko zaizu egunotan. Orain erabaki behar duzu: ordaindu edo helegitea ipini; baina madarikatzeak ez du ezer konponduko.

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Urte osoa lan eta lan ibili ostein, uzta jasotzeko unea iritsi da, hau uzta hau! Ospatu eta hartu oporrak, orainsu bidaia merke daude eta Karibe aldera, eta urakanen denboraldia amaitu da.

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Urteak beteko dituzu laster, beraz zorionak! Eta zelan ospatu behar duzu? Familiagaz lasai-lasai, maiteagaz goxogo edo lagunakaz parranda mundiala egiten? Ez dira, bada, aukera makalak!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena

uk

gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik



5 Aldeak. Aurki itzazu irudi bion arteko bost ezberdintasunak.



Soluzioa

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zein egun da euskararentzat berezia?

- **Abenduaren 6a**
- **Abenduaren 3a**
- **Abenduaren 8a**


La Gusana liburudenda **SARIA**
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Komiki-Azoka

> Irabazlea: **Maddalen Garcia***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Oinutsik*
 kontsulta podologikoa
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 oinutsik@euskalnet.net 

> Aurrekoaren erantzuna: Nire argazkia

> Irabazlea: **Garazi Uralde***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu

ANGEL INTXAUSTIK UTZITAKO ARGAZKIA



Bittor Egurrola

SAN MAMES FUTBOL ZELAIAN, 1976

Club Deportivo Getxoko Claudio Izquierdo futbolariari, Athletic-ek (Iribarren bidez) nazioarteko partida bat hasi aurretik (lagunarteko partida) omenalditxo bat eskaini zion, plaka eta txekoa oparituz. Zergatik? Bada San Mamesen bertan Bilbao Athletic-en aurkako partida batean, zoritxarrez min hartu zuelako aipatutako C. D. Getxoko jokalaria, Urkiaga atzelariagaz izandako jokaldian; 3. mailako partida hau 0-0 amaitu zen. Bere historialean, C. D. Getxok 44 denboraldi egin ditu 3. mailan eta bat bakarra 2.B mailan.

Bestalde, Athletic-en eta C. D. Getxoren arteko harremanak garai hartan oso onak ziren, besteak beste Enrique Guzman zelako Athletic-eko presidentea. ○

Ezkerretik eskuinera: Jose Angel Iribar (Athletic-eko atezain famatua), Jesus Idarraga (C.D. Getxoko presidentea) (GB), Claudio Izquierdo (C.D. Getxoko jokalaria hanka ebaki zioten eta horregatik agertzen da protesia jarrita eta makuluek lagunduta).

*Oharra: Laudi Agirremota (C. D. Getxoko ordezkaria) partida horretan izan zen, baina ez dago argazkian.

ANDER LIPUS > aktorea

“Aktorea izango ez banintz, sorgina nintzateke”

Testua: **Nerea Guijarrubia** Argazkia: **Ainhoa Resano**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Gogorra eta biribila.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Sorgina izango nintzateke.

Kolore horia, bai ala ez?

Bai. Eguzkiaren kolorea da-eta.

Zure umezaroko oroitzapen bat?

Amaaaaaaaa! Lehen aldiz oihukatu nueneko, kar-kar-kar.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Droga. Zehatzago esateko tabakoa.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Batu, nire txakurra.

Zein da zure ametsetako bat?

Nire emaztearekin elkartzea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Baztan. Han zaldiek hitz egiten dute-eta.

Gorrote duzun topikoa?

Ah! Aktorea zara? Ea noiz ikusten zaitugun telebistan!

Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?

Nire amari, nik baino gauza askoz gehiago daki.

Zerk ematen dizu beldurra?

Botereak.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?

Estatu guztiak desagertu direla, eta horrekin batera: militarrek, erregeak, bankuak, epaileak...

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Jorge Oteiza. ○

LABURREAN—Aurreko azaroaren 8an Kultur Leioa aretoan *Publikoari gorrote* lana antzetzten ikusi ahal izan genuen Ander Lipus, jaiotzez Iñigo Ibarra (Markina, 1971). Lipusek urteak daramatza oholza gainean eta ikerketa eta esperimentazio antzerkiagaz harritzen gaitu, horren erakusle nabarmenak, besteak beste, *Erregea eta Bufoia*, *Underground*, *8 olivetti poetiko*, *Ibañeta* edota *Errautsak* lanak dira. Horrez gainera, 2005ean Donostiako saria jaso zuen Yuri Sam lanagatik, eta aurretik, 1999 urtean, Euskal Aktoreen Batasunak saritu zuen. Lipus abangoardiako antzerkigile eta aktorea izan ez ezik antzerki antropologian aditua ere bada, eta zenbait antzerki eskolatan ere irakasle ibili da. Gaur egun, gainera, Lipus zuzendari den Artedrama Plataformak egoitza du Leioan, Kultur Leioa eraikinean, hain zuzen ere.

EUSKAL KULTURAREN XIV. JARDUNALDIAK XIV JORNADAS DE LA CULTURA VASCA

Klikatu!

EGITARAUA

PROGRAMA

ANTZERKIA/TEATRO: "MORRITSON ETA GARTZIA"	Azaroak 21/21 noviembre /20:00	Piper's Taberna
HITZALDIA/CONFERENCIA: "PORROTAREN GORAZARREA", ALBERTO IÑURRATEGI	Azaroak 22/22 noviembre /19:30	Fadurako areto nagusia Salón de actos de Fadura
NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA FESTIVAL INTERNACIONAL DE TRIKITIXA	Azaroak 24/24 noviembre /19:00	Musika eskola
EUSKARA SARIAren III. edizioa III Edición de EUSKARA SARIA	Azaroak 28/28 noviembre /20:00	Fadurako areto nagusia Salón de actos de Fadura
BAKARRIZKETA/MONÓLOGO: EUSKALDUNA NAIZ ETA ARRARO NAGO!	Azaroak 29/29 noviembre /20:00	Billares Taberna
EUSKAL MITOLOGIAREN FESTA ludotekan Fiesta de la Mitología Vasca	Azaroak 30/30 noviembre /17:30-19:30	Eskoletako plaza Plaza de Las Escuelas
"ARGIHIZKIAK" ERAKUSKETA EXPOSICIÓN "ARGIHIZKIAK"	Abenduaren 10etik 28ra Del 10 al 28 de diciembre	Algortako azoka Mercado de Algorta
BERTSOTRIKIBAND	Abenduak 1/1 de diciembre/19:30	Musika eskola
FREDY IGELDEGI. Zinea euskaraz FREDY IGELDEGI. Cine en euskera	Abenduak 2/2 de diciembre/17:00	Musika eskola
DANTZA KALEJIRA BEREZIA ESPECIAL PASACALLES BAILADO	Abenduak 2/2 de diciembre/12:00	Algortako kaleetan barrena En las calles de Algorta
BERBODROMOA	Abenduak 3/3 de diciembre 9:00, 11:00 - 17:00 eta 19:00	Fadurako jatetxe zaharra Antiguo asador de Fadura



www.getxo.net/euskara



XI SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO GETXOKO KOMIKI AZOKA

23.24.25 AZAROA – NOVIEMBRE 2012

AREETA KO GELTOKIA PLAZAN – PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
GETXO, BIZKAIA



metro bilbao



www.salondelcomicedegetxo.net

* BBK GORRIAZ, + 1 DOHAINIK / CON LA ROJA BBK + 1 GRATIS